


URRUZUNO
literatur lehiaketa
1988

lezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Euskara – Zerbitzua


katalogoa
Eibarko Herkuniza Esparrua
943 20.27.48
20600 EIBAR




HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
EUSKARA ZERBITZUA

irakaskuntza ertainetako

URRUZUNO

literatur lehiaketa 1988

LAN SARITUEN BILDUMA



Gasteiz 1988
EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA

Lehenengo Argitaraldia: 1988ko Abendua
Ale kopurua: 2.000

- © Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Azala: Jesus Iturriza
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01011 Gasteiz
Fotokonposizioa: DIDOT, S.A., Nerbioi kalea, 3 - Bilbo
Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A., Araba kalea, 45 - Zarautz (Gipuzkoa)
I.S.B.N.: 84-7542-644-1
Lege Gordailua: S.S. 219/89

AURKIBIDEA

Hitzaurrea		7
Prosa: A maila		
● Aitorpenak ilunabarrean ...	Izaskun Egiguren Imaz ...	11
● Ander	Inge Mitxelena Albisu	21
● Ihes betea zilegi balitz ...	Amaia Leiaristi Guenaga ..	27
● Konfidantzaren ordaina ..	Ainhoa Arregi Elosua	41
● Naturaren legea	Amaia Arruza Elgezabal ...	49
Prosa: B maila		
● Akatsa	Arantxa Mendieta Lasarte	61
● 5B: Bizitza Beltz Bat		
Beltzen Bizitza	Nagore Urbizu Uribe	71
● Boga-boga sareetan	Xabier Churruca	
	Fernandez	81
● Isilpean bego Anttonen itxura	Ainara Artetxe Arrien	89
● Zerutar inperioaren zedean	Jaione Franko Sudupe	97

Poesia: A maila

- Amodio Gorrotagarria **Asier Oiarbide Aldasoro** .. 111
- Baldin argia ikustera
iristen banaiz **Nekane Altuna Angiozar** ... 117
- Eguna **Aitor Esnal Badiola** 123
- Premio santu hura **Asier Oiarbide Aldasoro** .. 129
- Zu eta Ni (Hiria medio) .. **Mikeldi Bengoa Santxo** ... 135

Poesia: B maila

- Argi bi **Nagore Urbizu Uribe** 143
- Burruka **Aritz Etxebarri Coello** 149
- Heriotza **Izaskun de los Mozos
Olaizola** 155
- Orbaindu gabeko zauriak **Iñigo Olabarri Aldape** 161
- Zergatik? **Aitziber Alzugarai
Sacristán** 167

HITZAURREA

Hona hemen, hirugarren urtez, 1988ko Irakaskuntza Ertainetako URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA irabazi duten lanen bilduma. Benetan pozgarria lehiaketa honek aurtengoan ere jaso duen erantzuna, 390 izan bait dira (ikastetxeetako aurreaukeraketen ondotik) aurkeztu diren lanak.

Guztira 20 sari izan dira, Lehiaketarako deian azaltzen denez: 10 prosan eta 10 poesian. Bi arlo horiek, bestalde, bina mailatan zeuden banaturik, A eta B, Irakaskuntza Ertainetako gazteenen zatia eta zaharrentxoena bereiziz. Hogei sari horietako bakoitza zertan datzan azaltzeko, hona:

- Aste Santuan 10 egun inguruko bidaia egingo dute European zehar.
- Bidaia horretako norbere gastuetarako laguntza: 25.000 pzta.
- Oroigarri bat (Horretarako antolatuko den ospakizunean emango zaiena).
- Lanak bilduma honetan argitaratzea. Eskola guztietan banatzen da bilduma, Urruzuno lehiaketan parte hartu duten guztiei ere ale bana etxera bidaliz.

Bestalde, aurtengoan ere ezin esan goian aipaturiko bi arloetan (hitz lauzkoa eta olerkiena) partaidetza berdina edo-ta ore-

katua izan dugunik. Poesia arloak ez du guztiarekiko %13a besterik egiten, iaz bezalaxe. Hori bai! Aurten, aurreko urteetan ez bezala, arlo honetako sari guztiak eman dira. Ez ginateke oraindik ausartuko kalitateak gora egin duela esaten, baina datua hor dago. Olerkiak egitea «cursilada bat» ote, gazte batek zioen bezala? «Cursilada» denentz ez dakigu, baina saria irabazteko orduan konpetentzia txikiagoa dagoela ezin ukatu.


Lehiaketan azken urteotan irabazle suertatu direnek erakusten dute, bestalde, ikastetxe batzuetan literaturgintzari garrantzia eman eta arreta berezia eskaintzen zaiola. Beste batzuk ere ez dituzte meritu txikiak baina, denei ezin ba egin eta aurtengoz, aipamen berezia, Donostiako St. Tomas Lizeoari eta Beasaingo Alkartasuna Lizeoari egitea erabaki da.

On dagizula, irakurle!

EUSKARA ZERBITZUA

PROSA. A maila

B.B.B.ko 3. kurtsoa, UBI,
L.H.ko 2. gradua eta
IEEKO 2. zikloa.



Aitorpenak ilunabarrean

Izaskun Egiguren Imaz
Batxilergo Institutua
BEASAIN

—Zuk ez duzu nahi.

Itsaso gaiztoaren haserrea hondartzako arroken kontra topa egiten duten uhinetan baretzen da. Niri ere halako barealdi, halako sosegu arraro bat dakarkit naturaren alboan aurkitze honek, eta alboan dudan mutilari begiratzen diot. Bere begi zuriek salatari so egiten didate.

—Ez, ez dut nahi... —diot hasperen batez— Baina...

Azken hitza haizeak eramaten du, eta ez nago ziur berak entzun duen edo ez. Isiltasuna nagusitu da bion artean. Bera lurrera begira doa, eta begiak zuzen-zuzen puntu batetan inkatuak ditu.

Hotz egiten du. Bufanda gorria lepo inguruan ondo estutzen dut, eta hau egitean eskuak izoztuta ditudala nabaritzen, fularrak estaltzen duen haragi beroarekin elkartzean:

—Eskularruak etxean ahaztu zaizkit.

—Tori nireetako bat, eta beste eskua eman iezadazu.

Berea bero-beroa du, orain arte lanaren goxotasunaz babestua eduki eta gero.

—Baina zer? —galdetzen dit sakonki begiratu.

Begiak zerua itsasoarekin elkartzen den puntuan inkatzen ditut, eta irribarre bat ateratzen zait. Entzun du lehenago beraz...!

—Baina zer? Zer dakit zer esatera nindoan...! Agian garai hartan esan bazenit... Hamalau urte nituenean itsu-itsuan jarraituko nintzaizukeen.

—Zertan aldatu naiz bada?

—Ez, zu ez. Ni izan naiz. Orain arte amestu izan dudan guztia transformatu egin da. Eta zu orduko nire ametsen artean nagusiena zinen. Mito bat; eta orain ez.

—Jada ulertzen dut —dio, bere baitan bezala— beti nire alboan zinen, nire nahirik txikiena ere beteaz... Uste nuen, amestu izan duzun postua eskaintzean, onartuko zenuela.

—Oh, a zer nolako mundua den hau! Nik nahi nuen postu bakarra zure maitea izatea zen, eta ez zu buruzagia zinen taldeko «bigarren» buruzagia izatea. Bost axola niri garai haietan giza eskubideak...!

—Ezin dut sinetsi gogorki lanean hainbeste denbora igarotzen zenuela ezertarako, soilik ni ikusteagatik.

Hotzak eta haizeak dizdira berezi bat damaie bere begiei. Bustita ditu.

—Hala izan zen. Eta ez zuen ezertarako balio izan.

—Itsasertzetik paseatzen hasi gara. Bera isilik doa. Ni ere bai, eta aske sentitzen dut neure burua, zeru ilunean zenbakiak marrazten dituzten kaioen antzera.

—Zertan ari zara pentsatzen? —galdetzen dit, aurpegian irribarre bat agertu zaidanean.

Ez diot erantzuten, eta hiru urte lehenagoko maiatz hartaz gogoratzen naiz, berarekin atarian zegoen neska hura ikusi nuen maiatz hartaz.

Neskak keinu bitxiak egiten zizkion eta berak neska hura jo egin zuen. Ondoren une luze batez begira geratu zitzaion eta musu eman zioten elkarri. Ez ninduten, ez batak ez besteak ikusi, berehala korrikan etxera erretiratu bait nintzen. Behin etxean, gelan ezkutatu, eta astebetetz ezertarako gogorik gabe egon nintzen, berak telefonoz deitu zidan arte:

—Zer gertatzen zaizu?

—Ni... gaisorik egon naiz.

Berak orduan hamazazpi urte zituen, eta neskekin izugarritzko arrakasta. Lur jota nengoen, behar ninduenean bakarrik jotzen zuela neregana pentsatuz. Eta momentu hartan behar ninduen gure kanpaina aurrera eramateko. Harrik horretarako behar ninduen.

—Zer moduz kafesne bat hartzen badugu? —galdetzen du.

—Konforme. Eguraldi honekin ederki sartuko zaigu.

* * *

Ez dakit zergatik eta nolatan, baina badakit zerbait gertatu dela. Lehen ez zen horrelakoa. Kafesnea edaten duen bitartean buruan zer darabilkien gustora igarriko nuke. Gaur begiak margotu ditu; ez, ordea, nirekin atera behar zelako. Norekin amesten ote du orain neska honek?

—Eskerrak hemen beroa dugun behintzat —diot, irribarrez.

—Bai, bufanda eta txamarra kenduko ditut. Ez dakit lehen zergatik ez dudan egin.

Elkarrekin ongi ez doazen bufanda gorria eta txamarra marroia eraztean, azkenengoz ikusi nuenetik zenbat aldatu den narbitu dut. Ez da, egiazki, orduko neskatila argal eta ahul itxurako hura dagoeneko, eta bere jertseak zigarro usaina du, lehen ez bezala.

—Erretzen hasi al zara? —galdetzen diot, aspaldian galdutako konfidantza erabateko hura berreskuratu nahian.

—Noizean behin erretzen dut, baina ez nau gehiegi erakartzen.

—Zure ajea nire amaren madalenak ziren. Gogoratzen?

—Izan ere, zure amak hain onak prestatzen zituen... Gozotegi bat jarri izan bazuen, kiniela tokatuta baina gehiago aterako zuen!

Iribarre lasaia egiten du. Bere izakera hertsia du ordea, ez da lan erraza bere pentsamentuak asmatzea. Une batez isilik geratzen da, bere kafesnari konplizitatez bezala begira.

—Zer ari zara pentsatzen orain? Segunduoro irribarrea duzu ezpainenetan.

—Ni? Bai? Ezer ez, berezirik. Nire gauzak... Aizu, Harri, aspalditik ez duzu nire lagunak berririk, ez da hala?

Honek adierazten dit lagunak buruz ari zela pentsatzen, baina, ba ote dago norbait berezirik horien artean? Nolanahi ere, jakingo dut:

—Ez, ez dut, egia diozu; zer berri daude hortik?

—Txemak, adibidez, karneta atera zuen duela aste pare bat.

—Ez da izango!

—Bai, orain badugu bidaiatzeko posibilitatea.

—Txemak eta zuk? —diot, eta bat batean Txemaren aurpegi beltzarana etortzen zait burura. «Guapoa izango duk geroago», pentsatzen nuen orduan, «geroago» hori iritsiko zela pentsatu gabe.

—Txemak, eta nik, eta Jonek, eta Mirenek.

Bera ez da burugabea, eta bete-betean asmatu du nire gal-

deraren zentzua. Orain irribarre maltzur bat marrazten dute bere ezpainen. Badirudi momentu txar hau luzatu nahi didala.

Eta bat batean jakin dut zergatik aldatu den hainbeste, baina orain ezin dut berriro hori gogoratu. Hura ahaztua nuen dagoeneko, baina berak ez... Berak ez du inoiz ahaztu Miren eta nire artekoa... Ez nuen uste horri buruz ezagupenik zuenik ere... baina gaur Mirenen izena era berezi horretan esan duenean... jakin dut.

Egurrezko mahaian behatzez marrazkiak egiten hasi naiz, baina bera sentitzen dut gaineratik begira, eta bere begiradaren esanahia ulertuko ez dudala ziur nago.

* * *

Uste dut kupidagabea naizela, eta mutilari denboraldi txar bat pasatu arazten ari naiz.

—Eskatuko al ditugu otarteko batzuk? —diot, berotasunez— oso ongi egoten da hemen.

—Bai, niri tortila, mesedez —dio berak, irribarre egin nahian.

Mahai inguruan eseri gara berriro. Dagoeneko ez dut lagunetaz hitzegiten jarraitzeko gogo izpirik.

—Oroitzen al zara antolatu genuen manifestapen hartaz? Gu biok besterik azaldu ez zen hura? —galdetzen dit berak, bat batean.

—Noski, amak ez azaltzeko erregutu zidan, baina ni neurearekin atera nintzen.

—Azkenean dena utzi eta, orain bezalatsu, zerbait hartzera etorri ginen.

Biok parre egiten dugu.

—Nola utzi zenezake orain dena, eraiki dugun guztia? Ez da arrazoizkoa.

Begiratu egiten diot, sakonki:

—Giza eskubideak ez zen nire ideala, zu zinen soilik. Noski dela arrazoizkoa dena uztea.

—Zure beharra dut.

—Ez al duzu orain laguntzailerik, edo?

—Bai, baina ez zu bezalakorik.

Hasperen egiten dut, eta nire ezpainak izotza bezala hozten dira pasarte hura gogoratzean.

—Musu hura izan zen —aitortzen dut azkenean.

—Zer?

Tabernako etxeakoandrea kuriositatez begira dugu, eta guk, ohartzean, isilago jarraitzen dugu:

—Eman zenidan musu hura. Ez al duzu gogoratzen? Nik neure egunkarian idatzita dut: «Martxoak 17. Gaur musu eman dit. Egun hau bizitza osoan gogoratuko dut, gogor borrokatuz bere alboan. Maite dut».

Bera isilik geratzen da une batez:

—Ahaztua nuen musu hura.

—Ez nau batere harritzen. Inozokeria bat izan zen, ume kontu bat besterik ez.


Kanpoan euria hasi du. Tabernaren gainean dagoen pisuan norbaitek musika geldia jarri du. Bat batean, tabernako atea irekitzen da. Kanpo usaina eta hotza sartzen da, baita nere barruan dena aldatzen duen norbait ere, bihotza pozten didan norbait. Irribarre egiten dit guregana iristean:

—Kaixo. Zure etxera deitu dut, eta esan didate ez dakit nork zurekin hitzegin nahi zuela.

—Hau zen, Harri. Aspaldiko lagun Harri.

Tabernatik irtetzen garenean, Txema irribartsu aurkitzen dut, Harriri bizkarretik lagunkiro heltzen diolarik.

Gaua piskanaka-piskanaka hiri guztia aldatzen ari da. Hemen bat, han beste bat, argiak pizten hasi dira. Gu geure mundu berezi batetan aurkitzen gara, eta ikusten dugun paisaia, paisaia irreal bat da. Dendetako eskaparateak erakusten dizkiguten produktu ezberdinak, beti korrika dabilen jendearen hotsa, autoen joan-etorriak, mugimendu honek guztiak harritu egiten gaitu. Iluntzea den momentu magiko honetan euria hasi du, eta gu hirurok etxerantz abiatu gara.



Ander

Inge Mitxelena Albisu
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Hamahiru hilabete nituen «bera» jaio zenean. Eta behin baino gehiagotan saiatu izan naiz garai haietan niri gertatutakoak aztertzen, edo agian aztertzen baino gehiago, nire benetazko gogoetak eta nire barruan besteen bitartez sortu ditudanak bereizten, gaur egun biak filme baten antzeko batean nahastuak ikusten bait ditut, zeintzuk diren batak eta zeintzuk besteak esaten ere ez dakidalarik.

Bi urte nituen, eta zegoeneko nire anaia eta nire ahizpa nagusiak ikastolara joaten ziren. Egunero, amarekin, beraiek agurtzera joan ohi nintzen autobusa hartzen zuten lekura.

Nik izugarrizko gogoa nuen ikastola garaia niri ere iristeko eta amak, noski, nabaritu egin zuen. Egun batean, autobuseko andereñoak bertara eraman ninduen eta, egia esan, ez naiz ondo ala gaizki pasa nuen esateko gauza. Hala ere, niri ere iritsi zitzaidan eskola garaia, eta gazte gehienek bezala, egun hori ezer baino hobeto gogoratzen dut.

Ez nuen autobusera igo nahi. Ez nuen ama askatu nahi. Ezta andereñoaren aurpegia ikusi nahi ere. Ez nintzen autobuseko neska-mutilen presentziaz ohartzen. Eta nire buruak, bestalde, garbi zekusan «bera» amarekin goxo-goxo etxean...

Horrelakoa izan zen nire ikastolako lehen hilabetea. Eta denborarekin bertara ohitzen banindoan ere, ezin ahantzi neza-keen «bera».

Ni ibiltzen aspaldi ikasia nintzen eta hura gertaera garrantzi-tsu bat ez zen izan, edo behintzat hala uste nuen.

Batek jaten, ibiltzen, hitzegiten, laztantzen ikastea arrunta iruditzen zitzaidan. Guztiok ikasi behar genituen gauzak ziren.

«Bere» lehen pausoak, ordea, etxekoentzat mirari bat edo zirela nabaritu nuen. Haiek ziren zaratak! Haiek txaloak hain pauso traketsengatik! Zer tontakeria!

Eta «bere» lehenengo hitzak zer esanik ez. Hitzak baino gehiago soinuak ziruditen horiengatik ere nolako poza!

Ez nuen ulertzen. Eta «berarekiko» sentitzen nuen goxo-tasuna, «bera» musukatzen edo laztantzen nueneko maitasun hura, nire barneko jeloskortasun batek mugatzen zuen zergatik ondo jakin gabe.

Beraientzat berezia zirudien «hark», niretzat ez zuen ezer berezirik.

Ez nuke esango garai hartakoak edo beranduagokoak izan ziren berezia izate horrekiko nire lehenengo zalantzak. Etengabe-ko zalantza horiek, egin ez nituelako erantzunik jaso ez zuten mila galdera horiek. Baina zer zen galdetu behar nuena?, eta noiz?, nola?, nori?...

Geroxeago betidanik jakin izan dudala iruditu bazait ere, ez naiz gauza nire barnean «aurkitze» hura egin nuen unea topa-tzeko, dena nahasturik ikusten bait dut.

Une hori baino beranduago gertatu behar izan zuten gerta-kizunak, adibidez, gaur egun, eta nire orduko sentimenduak nola gogoratzen ditudan ikusiaz, lehenagokoak iruditzen zaizkit. Eta alderantziz, lehenago gertatu behar izan zutenak, jadanik hura

banekiela, zegoeneko «aurkitzea» egin nuela, nire gogoetetan garbi dagoela pentsatzen dut.

Honekin, konturatzen naiz nola bizitzan zehar, gure baitan, sentimenduek, nahiek, itxaropenek, etsipenek, pertsonak hainbat buelta ematen dituzten. Etorri eta joan egiten dira, joan eta etorri. Eta joan-etorri horietan, maitatu, gorrotatu, onartu, baztertu, ahaztu, ezin ahaztu ditugu. Nahita batzutan, nahi gabe bestetan. Konziente edo inkonzienteki. Guzti hauek, neurri desberdinetan, geureak bihurtzen ditugun une bat iristen delarik. Gure egiaren, beraz, gure izatearen zati bat bihurtzen dira. Eta handik aurrera, gauza guztiak horren arabera ikusiko ditugu.

Hainbeste denbora «berarekin», eta nola ez nuen jakingo ba? Baina noiz jakin nuen? Ez, ez zen bapateko «aurkitzea» izan. Piskanaka, hain harrigarriak iruditzen zitzaizkidan besteen jokakerak, puzzle baten antzera, nire barruan tokia irekitzen joan ziren, guztiz osatzera iritsi arte.

Orduan bai izan zela haundia nire baitako nahasketa! Nahasketa batetik atera eta beste batean sartu!


Jeloskortasun horretatik, eskuzabaltasun horretara, alde batetik. Bestetik, izugarrizko tristura. Arazo horren arrazoiarekiko ulertezintasun eta onartezinezko sentimendua. «Bera» gutariko bat bihurtzeko gogoia eta saiatzea.

Beharbada eta orain, hamasei urte ditudalarik ikusita, ohar-tzen naiz, hura izan zela nire bizitzan erantzun beharrean sentitu nintzen lehen unea. Nire buruari kontuak hartzeko lehenengo momentua. Ordurarte ikasia nuena neurtzeko garaia.

Eta gaur, 1988.eko Azaroak 20, «bera» hamabost urtetako ile beltzdun mutiko lodikote bat delarik, «bere» aurpegiko irri-farra ikusten dudan bakoitzean, nire egoeran ez dauden beste batzuk konturatzen ez diren hainbat gauzataz ohar-tzen naiz.

«Bere» bakarrizketak entzuten gelako ate ondoan jartzen naizenenean, «bera» ulertzen saiatzen naiz. Baina «bera» gure mailan jartzera iristen ez den bezala, ni ere ez naiz «berera» iristen. Eta konturatzen naiz, nik hainbat gauza erakusten diodan bezala, «berak» ere, «bere» barneko mundu desberdin eta ezezagun horretan egonik, beste hainbeste erakutsi dizkidala.

«Eta zure begi marroixken forma luzatuek eta gorputzaren itxura bereziak aditzera ematen duten errugabetasuna, subnormalizatearen seinale diren era berean, zure zoriontasun paregabe-koaren ezaugarri nabarmenak direla ere badakit, Ander».



Ihes betea zilegi balitz

Amaia Leiaristi Guenaga
Batxilergo Institutua
ELGOIBAR

«Bai bizileku atsegina, errota zar batian, egunsenti argi batekin aurkitzen geranian, bai bizileku atsegina errota zar batian, egunsenti argi batekin aurkitzen geranian... la-ra la-ra la-ra-la...». Egun ederra benetan goizeko eguzki izpi argi eta bizkorrek jaikitzeako ordua dela adierazten didatenean. Salto batez, lastozko nire ohe bigunetik jaiki eta kanpoan, oihal orlegi batez estalirik baleude bezala, Euskal Herriko mendi berdeak dakuskit; eguzkiak bere berotasunarekin gure inguru maitatuak besarkatzen dituelarik. Belarra ihintzez estalia ageri den arren, ardiak, marra-marra dabilta, urrutiko mendietakoek harkaitz zati nimino eta mugikorrak diruditelarik. Txorien abesti eta haizearen marruma hotsek bikote polit bat osatzen dute, inguruko zuhaitzek, konpasa eramanaz, dantzatzen duten bitartean.

Askok eta askok pentsatuko duzue, artzai bizitza oso triste eta nahigabetua dela, baina inork ez daki goizean jaiki eta ardien kantutxo ozenez paisaia hauek ikusteak zenbat balio duen.

Badira dagoeneko bost urte ardien laguntzaz egunak igarotzen ditudala eta oraindik inoiz ez naiz damutu hartu nuen erabakiaz. Egun triste asko igaro ditut; batez ere neguan, nire txabolatxoan sarturik, ardi gaixoren bat zainduz irratia entzuten dudan bitartean. Momentu horietan nire gaztaroko ibileretaz oroitzen naiz; pentsakizun hauetako asko triste bezain larriak izaten dira, drogaren munduan oina jarriz gero gozotasun gutxi bilatzen

bait da. Nire bizitza, euli gaixo bat armiarma maltzur baten sarean kateatuta geratzen denean bezalakoa zen. Etxean urduritasuna eta nahigabea nahasten ziren, denon bizitzak arbuiagarriak eginez. Ez zen giro izaten ez, amak ez zidanean etxetik irtetzen uzten eta ni berriz, droga beharrez akabatu beharrean. Etxekoei min egiteaz damutzen nintzen eta askotan zin egin nion amari bizibide eskas hura utziko nuela, baina lagunartera itzultzean, damua droga beharraz nahasten zen eta azkenak irabazten zuen burruka.

Udaberriko egun alai batean, zorionak gure etxeko ate negartia jo zuen. Ireki eta nire lagun Patxi zen, berarekin artzai lanetara joatea proposatuz. Patxiri baietz esateaz ez naiz sekula damutu, bere laguntzaz, eskuetatik joana zitzaidan bizitza berreskuratu bait dut, minaren minez, ezabatua nuen bizipoz zoriontsua bueltatuz. Patxi, astean behin etortzen da nigana, gauzak nola doazen ikustera eta hizketaldi luzeak eduki ondoren, hemendik bost bat km.-tara dagoen bere etxolara bueltatzen da.

Lehenagoko arima triste, jeloskor eta errukigabe hura irten da nire gorputz barnetik, benetan naizen pertsona alaia ikusten utziz, laino atzean lotsati agertzen diren eguzki errainu bizien legez. Jende askorentzat beraien bizitzako aldirik ederrena gaztaroa izan bada ere, nik ezin dezaket gauza bera esan.

Hamabost urte bete arte mutil alaia nintzen baina, hori bai, lotsatia. Nire lagunak orduan hasi ziren lehenengoz edaten. Denbora iragan ahala, droga bigunenak dastatzen ere esperientzia hartu zuten. Garai hartan oso axolagabea nintzen eta pertsonalitate ahulekoa gainera. Horrela izan zen gaztaro ilun bat markatuko zidaten ibileren hastapena. Geroago beharraren beharrez droga munduaren oinaze beltz eta gogorraren azpira erori ginen. Lagun batzuk garaiz konturatu ziren eta ondoren zetorkien mamuari ihes egin zioten; ni berriz, zapla erori nintzen zulora.

Ekainak 22, astelehena: Egundua triste benetan, behe laino astuna inguru guztiak estaltzen dituen maindire ilun bat da, burua

goxoki ferekatuz. Zuhaitzak, erraldoi burugabeak eta artzai txabolak gaztelu ubelduak bailiren ageri dira; lotsati, goi aldea erakutsi nahi ez balute bezala. Ardiak ere, txabola barruan ego-tera behartuta daude, 2 m.-tara ere ez bait da ezer ikusten, beraien kantu melankoliatsuarekin inguru guztiak gogaituz. Pintto artzai-txakur zuriak ere zaunka egiten du, laino artean norbait ezku-taturik egongo balitz bezala.

Bizitza latza tokatu zaio benetan, nire anaia Txomini; latza, gaitza eta zorrotza. Lehenik, drogaren mundua, artzai bizitza ondoren eta orain gartzelako bizimodu tristea. Bere etxolara joan eta atxiloketaren arrazoia bere egunerokoan bilatzen saiatu naiz, baina ez dut ezer berezirik topatu. Bart gauean, koartetik dei egin ziguten, nire anaia bertan zegoela esanez. Hasieran, ezinezkoa zela iruditu zitzaigun; ondoren jakin genuenez, politika zen atxiloketaren arrazoia. Ez ziguten gehiago esan. Kezkak larritasuna areagotzen digu, orduak jasangaitzak bihurtuz.

Arratsaldeko bostak dira, lainoek ia zero guztia estaltzen dute, eguzki errainu ahul batzuk tarteka-marteka beraien agintea erakusten dutelarik.

Koartel gris beltzaztua nire begien aurrean agertu denean, korapilo bat egin zait eztarrian; txakur txikiek ematen ez didaten arren, izutu egin naiz eraikin baxu, luzeska eta aitzindari honen ondora hurbiltzean. Kanpoko txakur zarata eta zerbitzua tokatzen zaienen metrailetan distirak hunkitu egin naute. Ez nintzen inoiz horrelako toki batean egon eta gehiago ez etortzea espero dut. Atean zegoen gizon altu batek, gonbidapen «goxo eta jator» bat egin dit: «Venga niña, paza, que no te vamo a come». Begi beltzen maleziak eta sudurraren beherantz begiratzeko joerak, nazka eman didate eta «ondo joan eta pareta jo» legezko begirada bortxatu ausart bat bota diot. Barrura sartu ahala, zur usteldu eta

Ofizina moduko leku txiki eta estu batetara zuzendu naiz ondoren. Leihatila nimino baten atzean Gunilla Von Bismark berak baino ile horiagoa duen andre zantar bat agertu da. Aurhairs lizunduaren usaina areagotzen da; ez du ez leku honek gaizki irabazia bere fama.

pegian titanlux pote oso bat erabili duela dirudi, pinturaren pinturaz lodiagoa eginaz. Hitzegiteko era berezi bezain polikiak eta ahotik botatzen duen tabako beltzaren usainak atzerakada ematen dute. Soka eman eta astiro-astiro aurpegiko keinua aldatu gabe mugitzen diren panpin horietako bat dirudi. Zeinen bila nabilen esan diodanean, bere inguruan zegoen gizon baxukote bati dei egin dio eta honek, nire anaia dagoen tokira lagunduko didala esan dit. Gizon txapar eta lodikoteak bide estu batetik eramanez, ametsetan bezala, segundu batean ere zalantzarik eduki gabe.

Bapatean, bide luzea bukatu egin da eta gela handi batean Txomin, nire anaia, ikusi dut; maindire urdin argi batez estalita dagoen ohe baten gainean jarrita, burua eskuen artean ezkutaturik duela. Pauso hotsak entzun dituenean, burua jaso du eta ni ikustean, irrifarre makal bat marraztu da bere aurpegi zurbilean. Barrura sartu naiz eta bere ondoan jarriz, musu bat eman diot. Piztu egin dela dirudi, begiak zeharo zabalduz eta aurpegia erabat alaituz. Etxekoak nola dauden galdetu dit eta espero zuen erantzuna entzun ondoren, nola dagoen bera galdetu diot; «denaren beharrean» erantzunak, harriturik utzi nau eta baita kezkatu ere. Bapatean, pentsati geratu da, begiak beste toki batean kokaturik balitu bezala. Ni ere isilik egon naiz, goian dagoen leihatilatik kanpora begira, zuhaitz mugikorren islada gelan nabaritzen. Hamar bat minutu luze horrela egon ondoren, zer gertatu zaion kontatzea erabaki du, hasiera nahiko zakar bat emanaz:

—Jakingo duzun bezala, politika arazoengatik nago zulo honetan. Nire bizitza beltza da... Bizitza ia eramanez zidan lehe-

nengo ostikada hartatik ihes egin nuen bezain laister, beste hau datorkit.

Artzai bizitza egiten hasi nintzenean, lehenengo oso gaizki ibili nintzen, drogaren oinaze iluna gaineratik ezin nuelako kendu eta bakardadeak etsipen izugarri bat ekartzen zidalako. Geroago berriz, ohitu nintzen ardien laguntzaz eta astean behin etortzen zen Patxiren bisitaz bizitzen. Noizean behin, zuek ere etortzen zineten eta nire gaixotasunetik sendatuz, bizitza pozgarria bihurtu zitzaidan.

Denbora pasatu ahala, bi mutil ere ezagutu nituen, noizean behin eguna pasatzera etortzen zirenak, Mikel eta Jokin hain zuzen ere; eta etortzen zirenean, pozik pasatzen genuen eguna, ardien laguntzaz hitzegiteko norbait banuen behintzat. Gero eta lagun handiagoak egin ginen eta noizean behin, parrandaren bat ere egin genuen elkarrekin. Gero eta sarriago etortzen hasi ziren eta euren laguntzaz, egunak gero eta bizkorrago pasatzen zitzaidan. Politikari buruz ere askotan hitzegiten genuen eta Euskal Herriaren egoera kaskarraz hirurok bat etorri ginen.

Neguko egun ilun eta sirimiritsu batean, behe lainoaren erruz, ez nituen etortzen ikusi eta bapatean, han agertu ziren estu eta larri korrika, hitzegiteko adorerik ere gabe. Egoera hartan ikusita, etxola barrura sartzeko esan nien. Jateko zerbait eman ondoren, eseri eta hitzegiten hasi ginen. Ez genuen elkarri gauza asko esateko denborarik izan. Txakur zaunka ikaragarri batek txunditurik utzi bait gintuen eta nire eserlektik jauzi bat eginaz, leihora hurreratu eta urrutiko hotsak ez ziruditela antzematean, lagunei begiratu nien erantzun bila. Biak bietara ere oso urduri zeuden eta eserlektik jaiki eta ezkutaleku onik ezagutzen al nuen itaundu zidaten. Galderak nire onetik atera ninduen. Zer gertatzen zen? Zer zuten ezkutatzeko? Erantzuteko denborarik izan baino lehen, txakurren zaunka hotsetatik salbu, gizonen ahotsak ere entzuten genituen, kinka larrian zein zeinen gaineratik nabarituko.

Ez zen ezer ulertzen, kanpoan zebilen iparraize hotzak soinu guztiak desbideratzen bait zituen. Gutxi gora behera, ohartu nintzen gertatzen zenaz eta handik ihes egitea besterik ez zitzaidan bururatu. Atzeko atea ireki eta mendi aldera abiatzean, hainar bat gizon armatu ikusi genituen. Nire lagunek ihes egiteko gogoia erakutsi zuten, elkarri begiratu eta keinu azkar bat eginaz; ni berriz, geldi geratu nintzen, eskuak altxatuz. Handik hona zuzenean ekarri ninduten. Jokin eta Mikelek ihesari eman zioten baina, goizean entzun dudanez, dagoeneko hemen daude biak. Ez dut uste denbora asko egon beharko naizenik zulo honetan sartuta; ez bait nintzen ni bilatzen zutena eta gainera nire bizitzan agertu ziren momentutik, eurek esandakoa besterik ez dut egin. Harrigarria da benetan zer arazotan sartu dudan neure burua; Jokin eta Mikel laguntzat ditut, lagun ontzat gainera, baina ez nuen honelakorik espero. Nik ez nekien ezer nire etxolara iritsi ziren arte, beraien atzetik txakur zaunka latz batzuk ekarriz.

Ilargia, herri guztia estaliz, bertako jabea izango balitz bezala ageri da, izarrak bere diszipuluak izanik. Gaugiro ederra benetan, kaleetan zehar iluntasuna nabaria denean eta jenderik egon ezak, negu hotz eta isilaren nagitasuna markatzen duenean. Zuzenean etxera abiatu naiz. Egun tristea izan da gaurkoa. Nire anaia egoera hartan ikusteak zeharo kezkatuta utzi nau, guztiz jota dago, hitzegiteko doinuan nabari duen bezala. Esperantza apur bat ere agertu du, baina bere bizitza beltzak ez dio askotan lagundu. Zulokogune batetik irten orduko, zapla! berriz beste batera.

Eguzkiarekin batera, loratu da nire bihotza, alaitasuna berriz ere bueltatuz. Ardiek, ongi etorri bero bat egin didate beraien kanta ozenekin. Pintto artzai-txakurra ere poztu egin da ni ikusteaz. Egun polita izan da gaurkoa. Etxolara iritsi naizenean, nire

famili-tartekoak eta Karmele, Miren, Kepa, Aitor eta Maite lagunak ere han nituen zain, denen artean bizipoza eman didatarik.

Jokin eta Mikeli buruz ez dakit ezer. Goizean, joan naitekeela esan didatenean behintzat, gartzelan jarraitzen zuten.

Udazkenean eguzkiak irtetzean zeruan marrazten duen islada gorriskak lasaitasun eta poza ematen du, txorien poza ere gurearekin bat egiten delarik. Txorinoen abestiek esnatu nauteanean eta eguraldi hau ikustean, ohetik jaiki eta gosaria prestatzeari ekin diot: Oilo salda apur bat, barrua berotzeko; urdaia eta azkenik goiz guztirako gosea kentzen duen arto eta esnea. Ardiak hartu eta mendi aldera zuzendu naiz, hesi eta ote gutxiago dagoen tokian, nire bizilagunak gustorago sentitzen diren tokira. Hosto ximelduek, hanka azpian ateratzen duten kraska hotsek eta goizeko hotzak agintzera ematen duen ihintzak politagoak adierazten dizkirate Euskal Herriko mendi maiteak. Mendian gora abiatuz goizeko hotza nabariagoa egiten da, baina eguzkiak ihintza desagertarazi duen tokietan gustora egoten da, lehen errainu indartsuek egun guztian gelditu gabe lanean aritzeko prest dauden meagizonak diruditelarik, bizkarra maitekiro ferekatuz.

Eguerdian, etxetik eraman ditudan taloa eta txorizoa jan ditut; bapo gelditu naiz eta ondoren lo kuluskatxo bat egin dut zuhaitz baten kontra etzanda.

Esnatu naizenean, bostak inguru, eguzkia bere azkenengo ostikadak ematen ari zen, mendien atzean ezkutatu baino lehen. Begiak ondo ireki eta ingurura begiratu dudanean, zer ikusiko eta Mikel eta Jokin harkaitz baten gainean jarrita, niri begira. Beraien betazpi sakonak eta kolore zurbilak errukia ematen zuen. Hasieran, isiltasuna nagusitu da, elkarri ezer esatekorik ez bagenu, edo, asko eduki eta nola hasi ez bageneki bezala. Gero, esan beharrekoa ondo pentsatuta, Mikelek ekin dio solasaldiari

hasiera eman ez nahiko poliki, baina urduritasuna agertuz hitzegiterakoan:

—Txomin, lehenengo, barkamena eskatu nahi dizugu orain dela hamabost egun gertatutakoagatik. Akats larria izan zen gure aldetik zuri ezer esan gabe nahaste hartan sartzea.

—Bigarrenik, eskerrak eman nahi dizkizugu, zure etxolako atea zabaltzeagatik eta guri ihes egiten laguntzen saiatzeagatik. Benetako laguna zarela erakutsi diguzu, nahiz eta guk zuk bezala jokatu ez izan —jarraitu du Jokinek, politikariek egiten duten bezala ideiak banaka agertuz.

Niri hitzegiteko denborarik eman gabe, berriz ere hizketan hasi dira beste arazo larri eta estuago bati buruz.

Birikek, korrikaldiaren ondorioz, ahituta daudela dirudite, gorputzeko atalek duten oxigeno beharrian izugarria hornitzeko balio ez balute bezala. Zurrunbilo bat entzuten dut belarrietan eta irentsi ezin dudana pilota latz bat eztarrian. Burua astintzen dut, sudurretik behera irristatzen zaidan izerdi tantoaz libratu nahian. Alboan, korrika datorren tipo uniformatua oihu eginez bezala, ahoa asko zabaltzen ikusten dut, baina nik ez dut deus ere entzuten, buru barnean txistuka ari zaidan zurrunbilo zorrotza izan ezik. Hala ere, nire atzean, pausoak gehitu eta hurreratu egin direla entzuten dut eta, hortzak estutuz, pausoa biziagotzen saiatzen naiz. Ezin dut. Lurrera pegatuta sentitzen naiz, lotua. Dardara bizi batek astintzen dit gorputza, hanka hotsak gero eta gertuago entzuten ditudan bitartean. Hanka eta besoak, automatikoki mugitzen ditut; jaietan egoten diren panpin barregarriek egiten duten bezala. Paris, izugarria ikusten dut; alboetan luzatzen diren etxe zabalek, Don Kixoteko erraldoi amaiezinak dirudite. «Rue aux Fers» kalea zeharkatu dut eta «Rue de la Ferronnerie»-ra iristean, paisaia guztiz aldatu da. Etxe txiki eta kale

zabalak nagusitu dira, autobideek, erraldoi batzuen azpian gertzen diren labirintoak izateari utzi diote.

Euria hasten du. Jendeak solapak altxatzen ditu, batzuk beren aterkien azpian babestuz eta besteak buru makurtuen gainean egunkariak eutsiz, laburka korrika hasten dira.

Begirada izuti bat botatzen dut atzera. Dagoeneko arrastoa galdu dute eta metro batzuren barruan behintzat ez dira ageri. Lehenago ikusia dudan plaza errektangular batera iritsi naiz. Tei-latuak hurreratzen diren arabera, beltzago eta distiratsuago egiten dira. Gehienak telebista antenaz josiak. Etxeetako balkoi txaxuen azpian, arkupea. Lurra adokinatua. Hau aprobetxatuz umeez klarionez arrasto eta numeroak egin dituzte, koadrotik koadrorra saltoka denbora pasatuz. Liburuak eta karpetak lurrean egindako pilo batean. Adokinak bata bestearen atzean zein baino zein zikinago; adokin bat, beste bat. Azken honetan odol koagulatuaren mantxa beltza. Korrika, arnasestuka pasatu naiz, neguko iparraize hotzak hezurak ikutzean barruan sortzen duen zurrunbiloaren antzera. Zirrara hotz bat sentitu dut, hots fin batek belarriak zulatzen dizkidanean: «¡¡Alto, alto, o dispáramos!!». Bost behintzat badira atzetik dakartzadanak, txakur indartsu baten tirakada jasan ezinda korrika doan jabea bezala.

«Cafetería La Italiana». Iragarki handia. Begietan min egiten duten argi gorri eta berdeak. Banaka distiratzuz lehenengo eta ondoren biak batera; urrutitik ikusten den argi bikote polita osatuz. Txokolate usaina. Berotasun ikaragarri bat botatzen duen txokolate usain fina nabari da. Badirudi norbaiten urteak direla, umeen ahots ozenek «Zorionak» abesten bait dute, edateko beroegia dagoen txokolatea, katilu ilunetan, eskuen artean hartuz.

Udazkeneko arratsalde polit bat, baina bizkor iluntzen duen horietakoa. Kanpoko hotzari aurka egiteko, beroaren beroz, eda-

nezina dagoen txokolatea, katilu zuri zaharkitu batzuetan, eskuen artean daukagu. Botatzen duen beroaz baliatuz, eskuak berotuz. Mahaiaren alde batean, begiak gainetik kentzen ez dizkidatela, Mikel eta Jokin; ni, beste aldean, erregelarekin esku puntak berotzeko beldurrez dauden bi umetxoren maisu amorragarria banintz bezala. Ondoren kontatu zidaten istorioa barruan edukita, normala zen agertzen zuten kezka eta egonezina edukitzea. Gartzelatik, atxilotu zituzten egunetik hilabetera irten ziren, baina kontuz ibiltzeko esan zieten, hurrengoan bestela bizkarrezurra hausterainoko makilakadak hartuko zituztela eta. Izututa zeuden, beraien hitzegiteko era hutsak errukia ematen zidalarik. Larriena ez zen hori; gero eta arazo larriagoak kontatu zizkidaten, urrikaltasunetik aparte, gainera zetorkidanaz konturatu nahi ez banu bezala harridura aurpegia jarriz. Ez zitzaidan batere gustatzen elkarrizketak hartu zuen bidea eta harraskara joan nintzen ontziak garbitzera. Ihes egin nahi nuela ikusi zutenean, eskakizuna zuzenezuzenean bota zuten. Bazuten bi egunez gorde beharreko diru kopuru handi bat, etxean gordetzea oso arriskutsua iruditzen zitzaiena; hortik etorri zen laguntza-eskea. Sotoan, bazegoen ardoa gordetzeko leku polit bat, bertan zulokogune apropos bat egonik dirua gordetzeko. Ez zitzaidan gauza arriskutsu eta zaila iruditu eta baietz esan nuen, handik bi egunetara dirua eramaten bazuten.

Orain hemen nago, Parisko kaleetan zehar korrika, diruarenaren ondoren sartu naizen mila arazoetako baten ondoren neurre burua gartzelatik salbatu nahian.

Ez dago galtzeko denborarik. Ehun eta berrogeitamar metro baino distantzia laburrago batera jarraitzen dituzte nire pausoak. Hanketan sentitzen dudak minak, denbora gehiagoan korrika jarraitzeko indarririk ez dudala adierazten dit.

Kaleak hutsik daude. Eurria barra-barra. Nire begien bistan ez da arimarik ere agertzen. Niri zuzendutako deiadarrak gero


eta ozenagoak. Bihotzak salto egiten du nire barruan, guztiz nekatuta. Paparrean zintzilika dudan Ama Birjinaren domina gogorki estutu dut esku barruan. Oihuak gero eta saminagoak: «¡¡Chico, que ya nos estás cansando; o dejas esta puñetera carrera de una vez o no serás capaz de ver tu cuerpo como un colador!!». Hankak airean. Zarata hotz batek airean dar-dar egin du belarriak zulatuz, nire arima ere mugituz. Izuak menperatu nau eta hankek bizkorrago mugitzeko aginduari ez diote erantzun nahi. Bigarren zarata bat entzun dut; gertatuaz jabetzeko astirik gabe, min izugarri bat sentitu dut. LATZA, GAITZA ETA ZORROTZA. Odol beroa irristatzen sentitzen dut. Leunki baina etengabe isurtzen zait nire eskuaz hertsu nahi nukeen zulotik. Besoak airean astintzen ditut, aurkitzen ez dudan sostengu baten bila. Zango zauritua lurreratzen dut edo lurrera erortzen zait. Lurra odol arrasto batez zikinduz arrastatzen dut eskuineko zangoa. Beste pauso bat emateko prestatzen naiz. Gorputza eskuineko hankaren gainean. Ezkerreko zangoa altxatuz aurrera. «Alto, alto!!». Ezkerreko hanka lurrean jartzen dut, indarra ahitu zait eta belaunikatzen naiz, zango bero eta bustia lurrean arrastatzen dudan bitartean. Bizkarrean lehenengoz eta bularrean ondoren sentitu dudan minaren ondoren, irekita eduki nahi ditudan begiak hersten zaizkit. Odola gargaraka, usain gozoak goragalea ematen didalarik. Eskuak, kolpeka ihesi doakidan bizitzaz zikindurik, bular azpitik aldentzen ditut.

Kale estu bat, beste bat. Lurrean zehar ahal dudan bezala arrastaka. Bapatean auto bat. Pare-parean gelditu eta kolpean atea zabaldu du. Lurretik, begirada errukior bat bota diot autoko gidari betaurrekodun eta ile motzdunari. Barrura sartzeko keinu bizkor bat. Behe lainoaren moduko ke erdi-garden batek begiak lausotzen dizkit. Konfidantzazko mutila dirudi. Barrura. Gorputza ezin dut mugitu ere egin. Esku bat jaso eta autoko eserlekuari helduz sartzeko indarra egiten dut. Bizia salbatzen lagundu nahi didan mutil ausartak, eskua ematen dit, tirakada labur batez ba-

liatuz. Besapetik heldu dit aurrera indarra eginez. Eskuak, odol bero eta bustiaz zikindu zaizkio. Zarata bortitzak. Ez dago denborarik. Autoa abiatzen da poliki-poliki. Igotzeko azken saialdia. Sartu naiz nolabait. Aurrera. Hots gogor batek autoa ikutu du. Gidaria izutu egin da. Abiadura handitu eta bira zakar bat eman du «Rue Droite» kale estu eta teilatuen bidez erdi-itxirantz. Beste burundara bat. Oraingoan autoak ez die gidariaren eskariei amorerik eman. Gelditu egin da. Galduta gaude. Nire laguna saiatu da berriz ere. Baina ezer ere ez, autoa geldi. Kolpe gogor bat eman dio bolanteari bere esku handiekin. Amorrua nagusi. Irri-farre ahul batekin begiratu diot eskerrak eman nahian. Atea zabaldu eta nire gorputza lurrera erortzen utzi dut. Arrasto gorri bizi bat. Ahal dudan bezala belauniko jarri eta besoak gurutze bat osatuz jarri ditut. Laguntza baten zain, ondo hiltzen lagunduko didan laguntza baten zain. Ez dute ezer errespetatzen. Hirugarren zarata entzutearekin bat, gorputzean dudan mina areagotzen didan beste batek, besoa zeharkatu dit. Besapetik hasi eta eskumuturreraino. Esku bat odoletan, bestea, Ama Birjinaren domina ahal dudan estuen gorantz jasoz, heriotzaren arrasto iluna gorputza estaltzera datorkit.

IHES BETEA ZILEGI BALITZ,
NONBAIT BALEGO BAKEA.
NI EZ NINTZAKE ETXE ERTZEKO,
LOREDIEN MAITALEA.
NI EZ NINTZAKE OINAZEAREN,
MENPEKO MISERABLEA,
OIHU ZEKENEN DESTINATZAILE,
ETSIPENAREN SEMEA.
NI EZ NINTZAKE INOARENTZAKO,
ESKANDALUZKO KALTEA,
LUR HOTZ BATETAN ALDATUTAKO,
LANDARE SUSTRAIGABEA.
IHES EDERRA ZILEGI BALITZ,
URRA AHAL BALEDI KATEA,
NI EZ NINTZAKE ONTZIGABEKO,
ITSASGIZON AHALGEA:

(Dena bis)



Konfidantzaren ordaina

Ainhoa Arregi Elosua
Asti-Leku Ikastola
PORTUGALETE

Klaseko lehen egunean, Txabi poz-pezik joan zen ikastolara bere lagunekin; hala eta guztiz ere, hainbeste arazo konpontzen lagundu zion irakasle hura, Kontxi, ikusitakoan berarengana zuzendu zen, lagun guztiez ahantzirik. Hauek berehala hasi ziren mutila kritikatzeko, irakasle guztiak lausengatzen zituela esanez.

—Horrek egiten duena eginez, neuk ere aprobaturiko nuke guzti-guztia —esan zuen haietariko batek.

Nahiz eta Txabi horretaz konturatu, Kontxirengana jo zuen, lagunei beti gauza berberak entzuteaz nazkatuta bait zegoen.

—Kontxi! —deitu zuen.

—Txabi, aspaldiko! —erantzun zion honek eskua luzatuz eta elkarri musu bina emanez—. Zelan igaro duzu uda? Ondo, ezta?

—Bai, oso ondo, eta zuk?

—Nik? Primeran, baina orain berriro lanean hasi behar dut eta oso zaila gertatuko zait ohitzea. Batez ere lehenengo egunetan, nahiko txarto pasatuko dudala uste dut.

—Ez da hainbesterako izango.

—Niretzat bai. Klase ematen hasi behar dudala pentsatzeak aspertzen nau.

—Ba iaz klasean geundenean ez zuen hori ematen. Bazirudien, gauza bat azaltzeko orduan, ahal zenuen guztia eskaintzen zenuela. Eta gainera, oso ondo pasatzen genuen, ala ez zen horrela izaten?

—Bai, baina hori iaz izan zen, mesede bat egin nahi nizuelako.

—Eta aurten ere mesedegarri gertatuko zatzaizkigula ziur nago. Ala ez da horrela izango? —galdetu zion Txabik bere irakaslearen aurpegia ikustean.

—Ez, aurten zuen historiako irakaslea Koldo izango da. Saiatu nintzen erabaki hori aldatzen, baina ez zuten nire protesta onartu.

Txabik burua makurtu eta korrika alde egin zuen handik, ezer esan gabe. Bere lagunen aurretik pasatzerakoan, begietatik zerizkion malkoek guztiak bere atzetik joaten bultzatu zituzten.

—Kepa, Jon, Aitor! —oihukatu zuen Kontxik, mutilak atzera buelta zitezen lortuz.

—Zer?

—Utzi Txabi baketan!

—Baina zer gertatzen zaio? Negarrez doa.

—Bai, badakit —jarraitu zuen irakasleak, beraiei hurbiltzen zitzaielarik—. Baina bera pozteko zerbait egin dezakeen bakarra ni naizela uste dut.

—Zu? —galdetu zioten harriturik.

—Bai, nik neuk ulertaraziko diot guzti-guztia.

—Baina zer gertatu zaio? —galdetu zuen Kepak.

—Orain ezin dizuet azaldu, berarengana joan behar bait dut eta, gainera, hobe da Txabik berak esan diezazuen gertatzen zaiona.

—Ez digu azaldu nahi izango.

—Horrela izatekotan, ez derrigortu, hobe da eta.

—Nik ez dut deus ere ulertzen —esan zuen Aitorrek, gorantz begiratzuz eta sakonki zizpurutzuz.

Ni banoa korrika. Txabik behar nauela uste dut —aitortu zion Kontxik mutilei, tabernarako bidea hartuz, mutila harantza joaten ikusi bait zuen.

Tabernara heldu orduko, Txabi mahai batetan jezarrita zegoen, betiko kafe hutsa aurrean zeukala. Kontxi ondoan jarri zitzaion, beragatik egindako guztia ondo zegoenentz pentsatuz. Galdera horri ezin zion erantzunik aurkitu, alde batetik, ondo ikusten zuelako mutilari aurrera jarraitzen laguntzea eta, bestalde, hori eginez bere bizitza gehiegi aldatu zuela uste zuen.

—Txabi.

—Zer? —galdetu zion mutilak, amorratuta zegoela adierazten zuen ahots ikaragarri batez.

—Neure erruz gertatu da guztia —ezin izan zion besterik esan.

—Horrelako zentzugabekeriak esateko nahiago dut etxera joan zaitez. Etxera ez, baina nire begietatik urrun bai.

—Ez dut inolako lelokeriarik esan, mutil. Eta zuk badakizu zer esaten dudan.

—Gaur ez nabil ziririk ulertzeko moduan, beraz azal ieza-dazu dena behar bezala.

Txabiren esanak Kontxi ahozabalik utzi zuen, inoiz ez zutelako elkarri ezer ulertzeko arazorik izan. Momentu batez isiltasuna gorde zuen irakasleak, ez bait zekien zer esan.

—Beno, argi mintzatuko natzaizu —erabaki zuen azkenean.

—Has zaitezke nahi duzunean.

—Lehen esan dizudan bezala, ni neu guzti honen errudun bakarra naizela uste dut.

—Baina zeren erruduna, Kontxi?

—Ez dakit nola azaldu, ez dut horretarako hitz egokirik aurkitzen. Ba hori...

—Baina zer?

—Uste dudala gure erlazioa oso gogorra izan dela...

—Gure erlazioa ez da horren gogorra izan, —ebaki zion mutilak— baina orain bapatean apurtu behar izateak lur jota utzi nau.

—Ez, Txabi! —oihukatu zion irakasleak, eskumutur biak gogor oratuz—. Gure harremanak ezin dira horregatik apurtu. Zuk orain inoiz baino gehiago behar duzu nire laguntza. Badakit oso gogorra izan dela zuretzat lehen esan dizudana, baina lehenbait lehen jakin zenezan egokiena iruditu zait.

—Bai, horretan arrazoia daukazu, baina ezin izan dut neure burua kontrolatu. Egia esan, ez nuenez horrelakorik espero, orain oso zaila gertatuko zait klasean zu gabe egotea.

—Klasean ez gara elkarrekin egongo, baina behar nauzun guztietan zurekin egongo naiz.

—Horretaz ziur nago.

Txabik, irribarrea ezpainetan zeukala, burua makurtu zuen; zantzotan eztanda egiteko gogoia agoantatu beharrak eskatu zion ezarrerak ikaratu zuen Kontxi.

—Zerbait gertatzen zaizu?

—Zuk badakizu ezetz —esan zion mutilak, berriz ere bere irribarre gozoa erakutsiz—. Eskerrik asko.

—Zergatik hori?

—Ez dakit, eskaini didazun laguntza guztiagatik.

Kontxiri malko alai bi irten zitzaizkion bere begi ilunetatik, Txabi ere hunkitu araziz.

—Baina ni... —hasi zen Kontxi esaten.

—Zer? Jarraitu!

—Nik bide txarretik eramán zintudala eta orain...

—Baina zergatik esaten duzu hori? —ez zion amaitzen utzi—. Ez dut ulertzen.

—Ba oso argi dagoela uste dut.

Txabik, etsiturik, bere Txibati paketea atera eta mahai gainean utzi zuen, ahoan zigarro bat jarri eta piztu ondoren.

—Ez duzu nahi? —galdetu zion geroxeago Kontxiri, paketea seinalatzen ziolarik.

—Ez, beno bai. Hobe izango da horrela.

—Kontxi, lasaitu, mesedez.

—Ez dakit posible izango zaidan. Zu lasaitzera etorri naiz hona eta orain ez dakit nork trankildu behar duen nor.

—Ez dago inor lasaitzerik. Dena den, zu baretzea kome-nigarria izango litzateke.

—Bai, —negarrez— horixe bera esatera etorri natzaizu. Baina ez!

—Ez oihukatu, mesedez. Behar bezala mintza zaitez. Honela ezin dut ezer ulertu; benetan ez naizela argitzen.

—Ezin dut gehiago.

Tabernan sortutako giroa ez zitzaion bat ere gustatu Txabiri, beraz bere irakasleari klasera joatea proposatu zion.

—Zertarako joan nahi duzu orain hara?

—Hemendik irtetzeko.

—Tabernatik irten gaitezen nahi duzula? Baina zergatik?

—Goazen eta azalduko dizut kanpoan edo gogokoen duzun lekuan —esan zion mutilak, Kontxi eskutik oratuz.

Behin kanpoan, mutilak jarraitu zuen hizketan, den-dena konpondu nahirik.

—Ez zara barruko giroaz jabetu, ala?

—Betiko giro berbera ikusi dut —erantzun zuen Kontxik haserreturik—. Ez dut ezer arrarorik aurkitu.

—Betikoa diozu? Bai zera, mundu guztia geratu zaigu begira.

—Baina zergatik?

—Zergatik? Bota ditugun oihuak ez dira makalak izan.

Irakasleak Txabiren lepoan jarri zuen burua eta honek bere ile luzea laztandu zion.


—Goazen klasera edo berandu helduko naiz eta lehenengo egunetik ez dut bide hori hartu nahi.

—Bide txarra nik markatu dizudanez barkamena daukazu.

—Baina zer demontre sartu zaizu buruan? —Txabik bere senetik irtenda—. Azal iezadazu guztia burua erabiliz edo ez ezazu lelokeriarik esan.

Honek Kontxiri burua gehiago berotu zionez, ihesari eman zion eta poligonotik behera korrika galdu zen, inolako azalpenik eman gabe eta mutila guztiz aztoratuta utzirik: «Orain bai ederra egin dugula». Hain nahasirik zegoen ezen ez zezakeen ezta klaserako bidea hartu ere. Bere burua errudun kontsideratzen zuen: «Ni neu izan naiz guzti honen eragilea».

—Kontxi, itzuli! —oihukatu zuen bere arrastorik nabaritzen ez zenean.



Naturaren legea

Amaia Arruza Elgezabal
Lauaxeta B. Institutua
MUNGIA

Behin batetan garai bat zen, behin batetan mundu bat zen non lehoiak zebra jaten zuen eta lehoia hil eta gero putreek jana zen. Non jerboak langosta jaten zuen eta jerboa muskerrak jaten zuen. Non igelak tximeleta jaten zuen, eta bera papagaioak, eta hau eta beste animalia txiki asko leopardoak jaten zituen. Non pinguinoak arrainak jaten zituen, baina askotan pinguinoa poloko artzak jana zen. Sagua landarez bazkatzen zen, sagua sugeak jaten zuen eta sugea arranoak, eta azkenean arranoa otsoak jaten zuen. Otsoa hil eta gero, bere hondakinak landareak hazi erazten zituen, landareak matxin-saltoak jaten zituen, matxin-saltoak muskerrak, muskerrak lukiak,... eta beti berdina gertatzen zen, bizitzeko bizidun guztiak beste bizidun bat jaten zutelarik.

Halakoa zen mundu hura. Animalia guztiek lege bat bakarrik ezagutzen zuten eta hau Indarraren Legea zen. Oso indartsuak izan behar zuten animaliek bizitzen jarraitzeko. Ona ala txarra, ez zekiten, baina lege hau aurrera eramaten zuten. Izan ere lege hori ezin zuten aldatu Pizti Legearen Haitzak esana zegoelako.

Baina egon ere bazeuden lege honen aurka animalia batzuk; gehienak txikiak edo belar jaleak zirenez, bere hitzak ez zuen balio askorik lege horren aurka; baina egon, bazeuden, legea bizitzeko egokia zelako, baina batzuetan bidezkoa ez zelako.

Gutxienez hori zioen zebrak: ez zegoela legearen aurka, baina... ez zela bidezkoa.

—Ez da bidezkoa —esaten zuen zebrak—. Ondo deritzot lehoiak zebrak jateari, berak ere jan behar du eta. Baina gaur, adibidez, lehoi zahar horrek zebrakume zauritu bat ehizatu du. Berak jan behar du, baina ez deritzot bidezkoa zebrakume edo beste animalia txiki batzuk bakarrik ehizatzeari.

—Niri berdin zait —erantzun zion harro gazelak—, ni oso arina naiz eta. Baina... arrazoia duzu, lege hau ez da bidezkoa. Baina ezinezkoa da aldatzea animalia guztiak pozik utziz.

Barre zantzo bat bota zuen putreak.

—Zuok txoraturik zaudete! Legea aldatu! Pizti Legearen Haitzaren legea aldatu! Txoraturik zaudete.

—Zaude isilik! Aldatu egin daiteke...

—Guk behar duguna errege bat da! —oihukatu zuen ostrukak—. Errege bidezko bat!

—Errege bat? —oihukatu zuten bertako animalia guztiek.

—Txoraturik daude! —tripak botatzen zegoen.

—Hori ezin daiteke izan. Zein animalia? Gutariko bat ezin daiteke izan.

—Gutariko bat ez. Beste animalia bat, mundu honetakoa ez dena. Animalia bidezko eta azkar bat.

Baina zein animalia izan zitekeen? Hori, gurarizko pentsamendu bat baino ez zena, nola errealitate bihurtu?

Baina mundua ez delako bakarrik zientzia eta materia eta mirariak edo kasualitateak gertatzen direlako, egun batez gertakizun harrigarri bat suertatu zen.

Egun hartan animalia guztiak geldi-geldirik ziren. Zerbait gertatzen zen, dei harrigarri bat heltzen zen beren senera. Leku guztietako animaliak, beren eginbeharrak utzi eta leku bererantz abiatu ziren: Pizti Legearen Haitzera. Bertan animalia denak bildu ziren, den-denak; otsoak ardiekin, katuak saguekin, tigreak zaldiekin, lukiak oiloekin, arranoak usoekin, eta Lehoi zaharra Zebrearekin, denak Pizti Legearen Haitzari begiraturaz. Hau itsasertzean zegoen haitz soil bat zen. Animalia guztiak aurreratu ziren eta orduan ikusi zuten.

Pizti arraro bat zen, oso txikia, eder-ederra, amoretsua eta... azkarra, oso azkarra. Hau ikusterakoan animalia guztiak harritu ziren, inoiz ere ez zutelako halako animaliarik ikusi. Eta orduan jakin zuten pizti txiki honek, berak, berak izan behar zuela, berak beren Erregea izan behar zuela. Errege justu bat, animalia bat, oso azkarra, bai, berak izan behar zuen. Animalia guztiak ados zeuden, eta denak pizti hori beren Erregea izango zela eta beti esana egingo ziotela zin egin zuten Pizti Legearen Haitzaren aurrean. Pizti txikiarentzat izen bat pentsatu zuten, eta Gizona deitzea erabaki zuten.

Orduan erreinu zoriontsu bat hasi zen. Inoiz ez zen berriro kumerik jan, eta animali zauritu edo makalen bizitza errespetatzen zen. Eta txarruneetan animalia guztiak elkarri laguntzen zioten, inoiz egin ez zuten gauza beraien artean. Gizona, beste animaliak bezala bizi izaten zen: ehiza, arrantza eta landarez, oso azkarra zenez, ondo konpontzen zen bizitzeko. Baina beste animalien aldean desberdintasun bat zuen: animalia batek ere ez zion erasotzen, eta makal edo zaurituta zegoenean, animalia guztiak gogoz zaintzen zuten; beren erregea zelako eta uste zutelako Gizona gabe ez zirela kapaz bizitzeko, Gizona animalia azkarrena zelako. Eta honela, Gizona, animalien artean hazi zen. Animalia guztien artean itzelezko armonia bat zegoen, eta noski, armonia horren barruan Gizona zegoen, animalia bat besterik ez zelako.

Baina, animaliak ere bizidunak direlako, eta horregatik perfektuak ez direlako, okertu egin ziren, zeozeri buruz ziur gaudenean gertatzen zaigun bezala. Zein da bizidun guztion akatsik handiena? Beti eduki dugun, daukagun eta berarekin hil egingo garen handinahia. Ez ziren konturatu beraiek handinahiak ziren bitartean, Gizona, animalia azkarrena, beraiek baino handinahi askoz handiagoa zena, eta akats hau, errege bati buruz denean, oso arriskutsua da. Oso azkarra zenez gero, eguna aparailu interesgarriak egiten pasatzen zuen eta gero eta gehiago nahi zuen, gero eta gehiago; eta bere handinahia hazten zen bitartean bere aparailuak hobeagoak egiten zituen. Egiten zuenarekin eta zerraman bizimoduarekin inoiz ez zegoen konforme. Berak uste zuen onerako egiten zituela aparailu edo aldaketa horiek, baina ez zen konturatu bera gero eta hobeto bizitzen zen bitartean animaliak txartoago bizitzen zirela.

Lehenengo animaliak ehizatzekeo armak egin zituen, geroago arma hauek hobetuz joateko. Gero etxe bat eraiki zuen, lehenengo txabola txiki-txikia eta landarez osaturikoa zena, baina denbora pasa eta gero izugarritzko jauregi bat bihurtu zena, gero eta handiagoa izaten jarraitu zuenak animalia askoren bizilekuak apurtuz. Lehenik oinez zebilen, gero zaldiz, eta geroago motordun auto bat egin zuen, ke asko botatzen zuena, ingurunea asko kutsaturik. Asko kutsatzen zuten aparailu batzuk egin zituen bere jauregia gero eta handiagoa, gero eta lasaiagoa izateko.

Gizaki harro, boteretsu eta berekoia bihurtu zen Gizona. Bere lege bakarra bere burua zaintzea zen. Animalia asko ehizatzen hasi zen, gurariz, berak nahi zuela eta ehizatzen zituen, gose barik. Animalia bat gustatzen bazitzaion hartu eta berarentzat uzten zuen, animalien naturazko askatasuna apurtuz. Bazituen asko gustatzen zitzaizkion eta asko maitatzen zituen animalia batzuk ere. Baita gustatzen ez zitzaizkionak ere eta haien txarto tratatzen zituen eta hil egiten bazituen, hobe! Behin batean pentsatu zuen ez zitzaizkiola sugoiak gustatzen, eta gehienak hil zituen. Honen

ondorioa izan zen sagu eta untxi asko agertzea, landare asko jaten zituztenak, itzelezko soroak desagertuz. Honen lehen eragina belarjale asko hiltzea izan zen. Honela Gizonak ez zuen bakarrik animalien gorrotoa lortu, baizik eta Naturaren Legea desafiatu ere bai. Eta hau ezin da ukitu. Ukitzen bada amaia txarra egongo da, natura dena baino gogorragoa delako, azkenean beti naturak irabaziko du.

Animalia guztiak desgustoz zeuden, baina zin eginda zue-denez Gizonari esana egingo ziotela ez ziren kexatu. Baina gutxi falta zen hau gertatzeko, kokoteraino bait zeuden, eta injustizia bat gertatuz gero errebolta handiak sortuko ziren. Mukurua gertatu zen eguna heldu zen. Gizonak esan zuenean injustizia bat zela lehoi alfer horrek bakarrik zebrak ehizatzea (Gizonak zebrak asko maitatzen zituen) eta agindu zionean gazelak bakarrik ehizatzea. Lehoia alferraz gainera zaharra zenez, gazelak ezin ehizatuz, agindua betetzearren ez zuen ezer jan eta hil egin zen.

Berriro animalia guztiak Pizti Legearen Haitzean elkartu ziren, eta eztabaidatzen hasi ziren Gizonaren bidegabekeria. Pentsatu zuten egoera hartan ezin zutela jarraitu, azkenean animalia guztiak eta bere burua ere hil egingo zituen eta. Basoak txikitu ziren, bere jauregia gero eta handiagoa egiten joan zenarekin batera. Basoko landareak desagertuz, belarjale asko hil egin ziren; belar jaleak hil eta gero beste haragijale asko desagertu ziren. Aintzinako itsaso gardenak kutsaduraz betetako ur zikin bihurtu ziren; airea ere berdin. Eta mundu horretan bakarrik itsaso bat, bakarrik aire bat zuten.

—Bere burua hil nahi du! —oihukatzen zuen lehoi gazteak (hildako zaharraren semeak)—. Baita geurea ere! Hori egiten ez diogu utziko. Gizona ez da konturatzen mundu honetan bizidun gehiago gaudela.

—Guretariko batek berarekin hitzegitera joan behar du. Gertatzen dena azalduko diogu. Eta aldatu beharko du! Bestela,

gure armonia apurtu da! Gizona alde batetik, animaliak beste batetik.

Eta azkenean txakurra aukeratu zuten, Gizonaren lagun ho-berena zelako.

Txakurra Gizonaren jauregirantz abiatu zen. Beldur piska bat zuen, animalientzat oso garrantzitsua zen Gizonarekiko bere elkarrizketa. Egia esan Gizona animalia oso xelebrea zen, baina animaliak ezer ez zirela pentsatzen zuen, bera bezalako adimenik ez zutenez, bizidun hauek zapal zitezkeen, Gizonarentzat garrantzirik ez zutelako. Pentsamendu honetan zegoen bitartean, kon- turatu barik Gizonak egindako tranpa batean sartu zuen hanka. Harriturik oihukatu zuen. Mingor-mingor zuen hanka eta bertan bakarrik... Honelako batetan sasi artetik Gizona agertu zen eta lastimaz txakurra tranpatik atera zuen, bere jauregira eraman eta bertan amorez zaindu zuen. Gizona animaliarik handinahiena da, baina baita moeta desderdineko animalia bat maitatzeko kapazena ere. Egia esan Gizonak handinahia ez balu animalia perfektua izango litzateke, bere barne-barnean maitasun handia bait dago.

—Gauza garrantzitsu bat esan behar dizut —hasi zen txakurra—. Animalia guztiak desgustuz daude... Zu... injustua zara gurekin.

—Baina ni zuen erregea naiz. Zuek baino azkarragoa naiz, neuk dakit zer egin behar dudan eta zer ez.

—Bai? Ba al dakizu zer egiten hasi zaren naturarekin?

—Eta hori zer da nik lortu dudanerekin konparatuz? Ba al dakizu zer lortu dudan orain? —erantzun zuen harro—. Energia lortzeko sistema bat, lurreko materia batzuk radiaktibitatea lortzen dute eta honela energia egitea lortu dut.

—Baina hori arriskutsua da. Gizona, ez zara zeu bakarrik bizi mundu honetan, animaliak ere bizi dira. Gogoratzen duzu zeu ere animalia bat zarela?

—Ez, zeuok zarete animaliak, ni azkarragoa naiz, ni Gizona naiz.

—Beno, baina hala eta guztiz ere pentsatu duzu mundu bat bakarrik duzula? Gauza bat, izan zaitez zeuk nahi duzuna, baina aldatzen ez bazara animalia guztiak errebelatuko dira.

—Hori neuk esango dut. Ez duzu gogoratzen? Zeuok izendatu ninduzuen errege.

—Ez zara aldatuko beraz, ba... orduan, badakizu, animaliook zure aurka jartzen gara.

Honela amaitu zen elkarrizketa. Animaliak alde batetik eta Gizona bestetik. Hala ere ez zen ezer aldatu. Gizona botere-tsuegia zen animalientzat, eta orduetik aurrera animalien atzetik ibili zen. Mundu hori infernu bihurtu zen. Orain animaliak Gizonari ihes egiten zioten eta, lehenengoz, elkarri laguntzen zioten.

Baina esan dudan bezala, arriskutsua da Naturaren Legea desafiatzea. Egun hartan, Naturaren Jaungoikoek beren burua min emanda ikusi zuten; hilkor arrunt batek beraiek baino handiago izan nahi zuelako, beraiek baino gehiago jakin nahi zuelako. Eta Jaungoikoek hori ezin zuten onartu, naturak bere legeak zituelako, eta hori obeditu behar zuten hilkor guztiek.

Egun hartan Gizonak egindako energia lortzeko makinak akats bat izan zuen eta zentral nuklear hura lehertu egin zen.


Dena apurtu zen; mundu guztia; basamortu bat ezik ez zen geratu. Gizona hil zen, bere handinahiak hil zuen. Honela amaitu zen Gizonaren erreinua. Eta ez bakarrik bera, bera garrantzi gabekoa zen, landare guztiak, animalia gehienak... milaka bizidun hil zituen.

Bizirik gelditu ziren animaliak, oso gutxi, Pizti Legearen Haitzean elkartu ziren. Bere inguruari begiratu zioten: dena apur-

tuta, hilik zegoen. Baina honelako batetan ikusi zuten haitzaren arrail bat, bere barruan lurra zegoen, eta lurrean aritz txiki bat hazten zen. Bai, animaliak asko ikasi zuten, ez zuten gorroto Gizona, eta beraren gauza garrantzitsu bat ikasi zuten: maitasuna. Orduan eta bakarrik orduan animaliak bizidun azkarrenak izan ziren, Maitasuna ezagutu zutelako, maitasuna denekin. Zin egin zuten inoiz ez zirela animalia handinahi bihurtuko. Orduetik aurrera Pizti Legearen Haitza Bizitza Legearen Haitza deitu zen betirako.

PROSA. B maila

B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,
L.H.ko 1. gradua eta
I.E.E.ko 1. zikloa



Akatsa

Arantxa Mendieta Lasarte
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

—Azkenik! —oihukatu zuen—. Lor dezaket!

Albert 28 urteko gizon gazte bat zen. Zortzi urte pasa ziren gertatu zenetik; elbarriturik utzi zuen istripua, bere gurasoak hil ziren istripua gertatu zenetik.

Poliki-poliki gurpildun aulkian eseri zen. Azken aldi honetan hasi zen zutik jarri eta ibili nahirik. Baina beste arazo bat zuen Albertek, pisua. Oso erraz gizentzen zen eta, mugitzen ez zenez, nahiko lodia zegoen.

Gertruderi makuluak eros zitzaian esan zionetik egunero saiatzen zen, baina goiz hartara arte ez zuen ohetik ateraino oinez joaterik lortu. Andre etortzean, sorpresa bat emango zion.

Andre bere ikasle denborako lagunik onena zuen; bakarra. Aste honetan bertan etortzekoa zen, Andre ikusteko gogo bizia zuen, baita hitz egiteko ere. Beti bezain lotsati eta beldurti jarraituko ote zuen? Dena den, Andre oso tipo jatorra zen.

Gertruderi dei egiteko erabiltzen zuen kanpaia hartu, dei egin eta itxaron egin zion etor zedin arte.

Trenak Alberten etxetik hiru kilometro t'erdira utzi zuen eta Andre ez zen ibiltzearen aldeko. Gainera, jadanik arratseko zazpiak ziren eta iluntzera zihoan. Albertek bidalitako eskutitzean

adierazten zuen bidegurutzera iritsi zenean, ezkerrerantz jo zuen. Bidea aldapatsua zen oso eta urrunean ikus zitekeen etxea.

Egurrezko etxea zen eta etxe mota zahar hauek izan ohi diren bezala, iluna zen, ez zegoen oso zaindua eta egurra asko ilundu zela nabari ikus zitekeen.

Andre, azkenik, iritsi zen etxe parera. Ate itzela zen, burdinezko ate haundi bat; hotzikara sortarazi zion Andreri.

Segundu batzu ateari begira egon ondoren, ateko aldabari heldu eta bizpahiru aldiz jo zuen. Etxe barnean oihartzun isila entzun zen.

Handik berehala atea ireki zen, soinu gogorra eginaz. Beste aldean izugarritzko emakume lodi eta luzea agertu zen. Ilea, zuritzen hasia zuena, motots batean zuen bildurik; aurpegia guztiz zimurrez beterik zeukan. Zutik gelditu zen atea parez-pare irekita egon arren dena betetzen zuelarik, Andreri begira soilik. Beltzez jantzirik zegoen eta bastoi bat zeraman eskuin eskuan. Atzekaldean ikusten ziren paretetan zeuden zuziek itzal joko pila bat sortzen zuten barrukaldean eta emakumeari itxura beldurgarria ematen zioten.

—Barka, —hasi zen lotsati Andre— Andre nauzu, Andre Dubois.

Emakumeak ez zuen zimur bat ere mugitu. Han jarraitu zuen tente, bastoiari gogor helduz, Andreri begira.

—Albert, —jarraitu zuen Andrek— Albert nire zain dago.

Emakumea ate paretik kendu zen, Andreri sar zedin keinu bat eginez, atearen parean zeuden eskailera zabaletatik gora hasi zen, ematen zuen pauso bakoitzean azpiko egurrek soinu arraro bat ateratzen zuten, kolpe huts bat. Eskaileraren goikaldera iristean eskuineko alderantz joan eta pasiloko bigarren ate parean gelditu zen. Andre bertaraino etor zedin itxaron zuen. Bere ondora iritsi zenean, zera esan zion:

—Hau da Boni jaunaren gela.

Eta Andrerri begirada zorrotz bat bota ondoren, pasiloaren beste aldera joan zen.

Andrek atea jo zuen. Segituan ahots bat entzun zen barruan:

—Gertrude! Azkenean! Nolaz tardatu duzu horrenbeste? Ez al duzu kanpaia entzun?

Andrek atea ireki zuen. Gela zabala zen oso, sabai altua zuen etxe zabalak ohi duten antzera, eskuin aldean erreseldun ohe bat zegoen eta honen ezker eskuinetara bi zuzi zeuden; ezker aldean, berriz, ispilua zuen mahai bat zegoen eta honen alde banatara beste bi zuzi. Atearen pareko horman izugarritzko leiho haundia zegoen irekirik; bertatik kanpora begira zegoen Albert.

—Albert, —hasi zen Andre.

Albertek segituan eman zion bira bere aulkiari:

—Andre! —oihukatu zuen pozez— Zatoz hona!

Andre Albertengana gerturatu eta ohearen gainean eseriz, bere parean jarri zen.

—Zer Andre, ez al duzu lagun honi ezer esatekorik? —hasi zitzaion Albert, bere lagun zahar lotsatia animatu nahian.

—Zer moduz zaude, Albert? —biek zekiten bere elbarritasunagatik galdetzen ziola.

—Tira, tira, ez dugu nitaz hitz egingo.

—Ongi da. Adizu, nor da Gertrude delakoa?

—Nire gurasoen garaitik dago hemen, etxe osoaz arduratzen da. Ez da kanpotarrekin oso atsegina izaten; egia esan, ez dira bere gustokoak, eta bere itxuraz zer esan diezazuket? Nahiko emakume zaharra da baina, hala ere, izugarritzko indarra du eta nire egoeran pertsona indartsu baten beharra dut.

Haizeak, halako batean, leioa bortizki ireki zuen soinu izugarria atereaz.

Albertek segituan kanpaiaz dei egin zion Gertruderi. Haize bolada bat sartu zen gelan bi zuzi itzaliaz.

—Gertrude! —oihukatu zuen berriz ere Albertek.

Atearen beste aldean agertu zen emakumea, bere bastoia-
rekin Andre gorrotatzen hasia zen hots hura atereaz.

Lehiorantz gerturatu eta itxi egin zuen.

Ondoren, Alberten ondora joan zen:

—Afarria mahai gainean dago, Jauna, zerbait gehiago nahi al duzu?

—Ez, mila esker, orain goaz.

—Ongi da, Jauna.

Aterantz joan baino lehen Andrerri begiratu zion espresiorik gabeko aurpegi harekin.

—Jesus! Nolako betekada! —esan zuen Albertek, parean zuen pastel zatia urrunduz.

—Ongi da, Albert, ez al diozu zure gonbidatuari bere gela zein den erakutsi behar?

—Arraioa, Andre, bai portaera eskasa zurea, ez al dizu lotsarik ematen?

Biek seriozki begiratu zioten elkarri; azkenean, eutsi ezinik, barreari ekin zioten.

Halako batean Gertrude sartu zen.

Gertrude —hasi zitzaion Albert— igoko al zara Dubois jaunaren gela prestatzera, mesedez? Bitartean, Andre, goazen gu biok egongelara, han dago kafea jadanik.

Emakumea aurreratu zitzaien.

Egongela oso haundia zen, liburutegi izugarria zuen, dena egurrezkoa. Sartu zirenean, Gertrude gelan zeuden zortzi zuzietatik azkena pizten ari zen. Ondoren, Andreren gela prestatzera abiatu zen.

Andre larruzko siloi batean eseri zen, Albert bere parean.

Tximista eta trumoi batek sekulako ekaitza zetorrela adierazten zuen.

—Andre, zurekin seriooki hitzegin beharrean nago. Horregatik bidali nizun eskutitz hura etor zitezene eskatuz.

—Bai, eta hemen naukazu.

—Zuk berehala nabaritu duzu Gertruden lehortasuna. Beti izan zara pertsona sensiblea. Baina, benetan azken bolada honetan asko aldatu da. Emakume lasaia izatetik, eroa izatera iritsi da ia. Lehengo egunean lorategian aurkitu nuen bere leiho ondoan miauka ibiltzen zen katua hilik. Pozoindurik zegoen. Etxe honetan ez du inork janaria ukitzerik.

—Gertrudek ezik —esan zion Andrek.

—Gertrudek ezik —baieztatu zion Albertek—. Eta ez da hori bakarrik, aspaldidanik ez da inor etorri herritik hona Gertrude dela eta. Kanpotarrei ez die hitz egiten, niri ere askotan ez, bere begietan gorrotoa sumatzen dut azken bolada honetan. Beldurra hartzen hasia natzaio. Egia esan ez da oso erosoia honelako pertsona batekin bizitzea. Andre, etxea haundia da, badut sobera diru, gauza asko egin daiteke hemen gogo eta denborarekin. Gera zaitetz nirekin, mesedez, lagun baten beharra dut, Gertrude bidali nahi dut.

Andrek ez zuen horrelakorik espero. Mututurik gelditu zen.

Haizea zela eta, atea kolpeka hasi eta ireki egin zen. Han

zegoen Gertrude. Bi gizonak begira gelditu zitzaizkion; dudarik gabe, hizketaldia entzuten egon zen.

—Dubois Jaunaren gela prest dago —esan zien.

Ez zioten erantzun, harriturik zeuden. Emakumea joan eta bastoiaren kolpeak entzuteari utzi ziotenean hasi zen Andre:

—Albert, ikusi al duzu? Emakume horrek entzun egin gaitu! Nork daki zer egin dezakeen? —Andre oso urduri zegoen.

—Lasai, Andre, lasai zaitez.

Bakoitza bere gelara joan zen.

Albertek, ohera sartu baino lehen, gaueko kamisoi zabala jantzi zuen Gertrudek lagunduta. Ez zuten afal ondoan gertatutakoari buruz ezer aipatu. Irten baino lehen, makuluak ohe ondoan uzteko esan zion.

Lo egiten saiatu zen, baina ezinezkoa egin zitzaion. Laster lo hartzen ez bazuen, Andrehengana joango zen. Makuluekin. Nolako aurpegia jarriko ote zuen Andrek? Dena dela, bazuten gauzarik hitzegiteko.

Andreren gelak ez zuen ezer berezirik; ohea atearen parean zegoen. Oheratu bezain laster, gaueko gertakizunez pentsatzen hasi zen.

Kanpoan, ekaitza hasi zen, adar eta hostoek haizearekin batera musika arraroa sortzen zuten, euriak gogor jotzen zuen kristalen aurka. Zuziek oso argi leuna ematen zioten gelari, itzaltzen ari ziren.

Andrek ohe barruraino sartu zuen burua manta eta maindire azpian sartuz. Haizeak gogor astintzen zituen zuhaitzetako hostoak.


«Ez ditu kanpotarrak atsegin». Alberten hitzak euri jarioaren doinuarekin nahasten ziren. Guztia ahazten saiatu zen. «Ema-

kume lasaia izatetik, erdi eroa izatera pasa da ia». Trumoi bat entzun zen urrunean. «Beldur izatera heldu natzaio». Herrian, elizako kanpaiak. Gaueko hamabiak. «Bere begietan gorrotoa sumatzen hasia naiz». Tok, tok, tok. Bihotza gelditu zitzaion, bastoiaren kolpeak urrunean. Zuziak itzalirik. Tok, tok. Gerturatzen. Mahai gainean zegoen brontzezko irudi pisu bati begiratu zion. Tok, tok. Gerturatzen poliki-poliki. Euri jasa, haizea uluka. Gerturatzen ari zen. «Pozoindu egin zuen». Aingerua begiratu zuen. Beldurra hezurretaraino sartua. Tok, tok. Zutik jarri zen, hankek ia-ia huts egin zioten. Ate ondoan jarri zen, aingerua eskuan zuelarik. Aingeru hiltzailea, pentsatu zuen, ja! Tok. Bastoi kolpeak isildu ziren. Aingerua gogor heldu zuen, kemena behar. Atea ireki zenean, itzala ikusi zuen lurrian, emakume bat bastoi batekin. Itzalak bi pauso eman zituen barrurantz. Andrek aingerua gorantz jaso eta buruan eman zion, hezur hautsiaren hotsa entzun zen. Gorpua lurrera erori zen kolpe gogor batez.

Andrek ez zekien zer egin, gela iluntasunean zegoen. Arro-pak hartu eta Alberten gelarantz joan zen. Nola esplikatuko zion?

Alberten gelako atea bizpahiru aldiz jo zuen. Ez zion inork erantzun, lo egongo zen. Atea irekitzera zihoala hots bat entzun zuen atzean. Bira eman eta han ikusi zuen Gertrude. Emakumea irrifartsu zegoen. Andre korrika joan zen bere gelarantz pasiloan zuzi bat hartuz. Ate parera iristean, gelditu, belaunikatu eta gorpua argitu zuen zuziaz. Han zegoen, bere kamisoi eta makuluekin. Albert zen. Bere atzetik etorri zen Gertrude algarara bizian zegoen orain.

Euria, haizea uluka, Gertruderen algarak.



**5B: Bizitza Beltz
Bat Beltzen Bizitza**

Nagore Urbizu Uribe
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Gaueko mantu beltzaren azken aztarnen azpian eta goizeko haize fresko geldiaren besapean, kale haiek oraindik tristeagoak ziruditen: kaleak estu eta zikinak ziren eta lurrean botatako zaborren artean, han finkatzen zen noragabeen, eskaleen eta mozkorren bizilekua. Kale haiek beti zeuden ilun eta are gehiago orain, kaleko farola guztiak gazte bihurrien edo kaleetako alproja taldeen edo mozkor baten harrikaden ondorioz, inork konponetzeko itxaropenik gabe, apurtuak, okertuak... ageri zirenean; eta gainera, goizeko ordu haietan egunaren aita zen eguzkia oraindik lotan aurkitzen zenean. Baina hala ere, nahiz eguzki nahiz laino, nahiz egun nahiz gau, nahiz negu nahiz uda... kale hauek ez zuten desberdintasun handirik nabari; izan ere, aberatsen ispiluzko etxerraldoi luze dotoreen itzalek betetzen zuten auzo hau, bertara eguzki-izpiak heltzea ezinezkoa eginez, ispiluetan isladaturiko bat edo beste izan ezik.

Kale ilun hauek, beltz hauek, ilunak ziren etxez eta etxadiez zeuden osoturik eta etxe txiki ilun hauek, beltz hauek, margo berdinekoak ziren 8, 9... seme-alaba zituzten familia behartsuez osoturik zeuden. Beltzen auzo bat zen; txurien etxe aberatsetatik aldendurik aurkitzen zen auzo behartsu bat zen, hainbat familia beltz zaborren artean pilaturik bizitzeko «aproposa».

Baina une honetan, kale hauetako isiltasuna apurtzen zuten

pauso lehor batzuen oihartzuna nabari zen: koonnnk... konnk... konnkk... konk... pauso motelak, geldiak, beti erritmo berekoak, kaleek jantzirik zeramaten hileta tonu harekin bat zetozenak ziren... Pauso hotsen ondoren, itzal luze-luze bat kale zikinetatik arrastaka eta irudi abstrakto honen oinei itsatsirik, gizon bat: filmeetatik ateratako ganster maltzur horietako baten antza ematen zion kapela eta gabardina batez jantzia eta gabardina zabal haren azpian gorderik, gorputz indartsu eta garaia... itxuraz 30 bat urteko gizon gaztea, nahiz eta kapela azpiko ile-harro haiek zenbait ilezuri isuri eta nahiz eta 30 urte haiek erakarrirako nekeak begi azpian bi poltsatxo sortu. Baina aurpegi hieratik hark nekez gainera beste zer edo zer ere adierazten zuen... bere adineko gizonak ez zuten heldutasuna adierazten zuen eta era berean, azal zuri hura zipristintzen zuten bi begi urdin haiek, mundua bere menpean pozez hunkiturik belaunikatu erazteko samurtasuna adierazten zuten. Baina zer egiten zuen hain itxura oneko gizon txuri batek horrelako zoko-zikin batean eta hiria oraindik lo zegoenean? Bai, hiria oraindik lo zegoen eta baita auzo txiki hau ere. Baina gizon begi urdina ez zegoen lo, ondo esnai zegoen, nahiz eta nekea aurpegian grabaturik izan. Poliki-poliki, eskuak gabardinako poltsikoan sartu eta kale makur haietan zehar jarraitu zuen. Bidean etenaldi bat egin zuen lurrean kuzkur-kuzkur eginda etzan eta zenbait egunkari orriz tapaturik zegoen gizon beltz bat topatu zuenean. Hau seko lotan zegoen eta bizpahiru minutuz bere zurrungak sortzen zuten jazz melodia entzuten egon ondoren, berriz ere bere bidea jarraitu zuen. Piska bat aurrerago beste irudi bat ikusi zuen batera eta bestera zingulu-zangulu balantzaka. Zer ote? Beste gizon bat zen. Hau, botila bat eskuetan zuelarik, kantari ari zen eta noizbehinka zurrupada bat eman eta begiak bris-bris zituela maitekiro begiratu botilari, muxu handi bat eman eta kantari jarraitzen zuen. Honek gizon begi-urdina ikusi zuenean, botila zuen eskua luzatu eta inji-anjuka hitz jario bat bota zion. Besteak, ordea, ez zion jaramonik egin eta aurrera jarraitu zuen gau-txori mozkor kantaria atzean uzten zuelarik.

Orain iluntasuna ez zen hain sakona baina, hala ere, kale hauetan argi bat aurkitzea harritzeko moduko gauza zen. Gizon begi-urdina ez zen harritu, ordea, bere aurrean argi horiak, sirena soinuak eta jende mordo bat ikusi zuenean. Lasai-lasai gerturatu eta jende-tropelaren artetik etxe baten sarrera galerazten zuen polizi bibotedunarenganaino hurbildu eta txartel txuri bat erakutsi zion. Honek gizon begi-urdina Tom Walter, hogeitamar urteko ikertzaile pribatu ospetsua zela jakin bezain laster, bere muturbeltza irribarre batez estali eta atearen alde batera baztertu zen Tom-i sartzeko lekua eginez.

Tom-ek behean utzi zituen sirena hotsak, jakin-minen galdera eta bultzadak eta istilu guztiak; izan ere, aspaldi, goizean goiz, nagusiak deitu eta oheburu ondoan zuen telefono berdea hartu zuenean jakin izan zuen Rudhy Harrison izeneko andrea eraila izan zela. Eta helbidea jaso ondoren, korrika jantzi eta taxi bat hartu zuen bere etxetik auzo honen sarreraraino, gainontzeko bidea oinez egin zuelarik.

Tipi-tapa 5B-ko (auzotar guztientzat hain ezaguna zen Brainton kaleko 5. portala) eskailerak binaka igo eta aurrera eta atzera, batera eta bestera jendea etengabe zebilen ate batetik murgildu zen eta, besterik gabe, bere ikertzaile lana hasi zuen. Etxeak logela bat, sukalde bat eta komun txiki bat zituen. Sukaldearen erdi-erdian, hildakoaren gorpuaren inguruak lurrian txuriz margotuta eta honen ondoan lehortutako odola. Tom, ezeri jaramonik egin gabe eta etxea lehenagotik ezagutuko balu bezala, zuzenean logelara joan eta zoko-bazter guztiak miatzen hasi zen. Halako batean... hain nahaspilatua zegoen gela hartan, guztiz liruragarria zen liburu bat ikusi zuen, tertziopelozko taparekin eta orri guztien ertzak urre kolorezkoak zituelarik. Gerturatu eta egunkari bat zela konturatu zen, Rudhy Harrison-en egunkaria, hildakoaren egunkaria... ireki baina, tinta guztia zabaldua eta orri guztiak zirriborrotsu zeuden. Ez zen harritzekoa; izan ere, etxe guztia zegoen hezetasunak janda. Orriak banaka-banaka pasa eta... az-

kenean irakur zitekeen orri bat aurkitu zuen, eta beste bat, eta beste bat... Pozaren pozez irakurtzen hasi zen idazle gaixoak zioena:

Urriak 26

Gogoan dut oraindik nola Mark eta biok elkarrekin jolasten genuen eta nola eskolan mutilek mototsetatik tira edo gonak jasotzen zizkidatenean berak nola defendatzen ninduen. Ordu-rako gure bizitzak betirako elkarrekin egoteko eginak zeudela banekien. Gogoan dut baita ere goizero nola joaten ginen elkarrekin eskolara eta, geroago ere, jolasak utzi eta handitu ginen, banandu ezinak ginen: elkarrekin ikasten genuen, elkarrekin bazkaltzen genuen... egun guztia elkarrekin igarotzen genuen. Baina geroago ezkontzea erabaki genuen... orduan hasi ziren arazoak, gurasoek ezetz eta... etxetik alde egin eta eliza txiki batean osasun eta gaisotasunean, poz eta oinazeetan, aberastasunean... beti elkar maitatzea zin egin genuen. Oraindik haur batzuk ginen eta ez genekien zer egiten ari ginen, baina mundua gure esku zegoela uste genuen, gure begiak baikorrak ziren, gure aurrean dena urdin kolorekoa ikusten genuen... Baina mundu guztia mugi erazten duen, mundu guztia alda erazten duen, hainbeste hondamendi sortu dituen diruak, gu ere hondatu gintuen: Nik ikasketak utzi eta lanean hasi behar izan nuen Mark-ek ikasketak jarraitu ahal izateko, orain ez bait genuen gurasoen laguntzarik. Eta etxe merke bat ere alokatu ahal izan genuen; baina nahiz eta ongi konpondu, orain ez geunden egun guztia elkarrekin eta... ez zen berdina.

Azkenean, ordea, Mark-ek bukatu zituen ikasketak eta lanpostu on bat lortu zuen. Berriz ere, zorionaren gailurrera iristea lortu genuen; eta etxe polit bat ere erosi ahal izan genuen. Eta handik hilabete batzuetara gure lehen fruitua jaso genuen: John. Handik urte betera Mike, eta honek ibiltzen ikasterako Bruce heldu zen. Hurrena bikote bat izan zen; elkarrekin etorri ziren

azken hauek ere, beste guztiak bezala aitaren gisako gizon indartsu eta mardulak.

Aingerutxo hauei esker gure zerua guztiz osotua ikusi genuen; eta, ni nere panpintxoekin etxean eta Mark lanean, oso zoriontsuak ginen.

Baina ondoren hasi ziren gure familian, gure orainarteko bizitza zoriontsuan, neguaren etorrera adierazten zuen udazkenaren aztarnak azaltzen: Udako gau epel bat zen, zerua beltz eta izarrez betea zegoen, ilargi betearen argi distiratsua, zoko-bazter guztiak inguratu eta gauaren belztasuna apurtuz, harro agertzen zelarik izar guztien aitzindari... gau zoragarria zen. Baina gure familian ez zen hain zoragarria izan gau hura; izan ere, huskabea zirudien gau hartan «mirari» bat gertatu izan balitz bezala eta misterioz beterik, auzoko egunkariko hiruzpalau lerrotako artikuluan zioen bezala, Harrisondar familia BELTZAREN etxea sutan «hasi» omen zen. Baina gure etxearen galerarekin batera gure bi seme gazteenak, oraindik sehaska bere logureen asegarri zuten nere bi txikiak ere, galdu egin genituen. Mark eta biok etxerik gabe, bizitzeko gogorik gabe, noraezean eta hiru semeekin aurkitu ginen; gainera, Mark-en soldatak gora egin beharrean behera egiten zuen. Eta gure ametsak egun batetik bestera apurtuak, gure zeru urdina egun batetik bestera zikindua geratu zen. Baina txuriek «Beltzen Zuloa» izenez bataiatu auzo honetan etxe txiki eta merke bat erosi eta poliki-poliki buruak altxa eta bizitzako erlojuak aurrerantz egiten zuen heinean, begietako hezetasuna ere lehortzea lortu genuen. Honela pobrezia berri honetan, miseria berri honetan, zoriontsu izaten edo, behintzat negar ez egiten ikasten hasiak ginenean... Egun batean, Mark ordua baino lehenago azaldu zen etxean, burua makur-makur eta pauso geldiekin. Begirada galdu batekin begiratu eta ezer esan gabe, lotsatuta bezala isiltasun goibel batean murgildu zen. Orduan, eta lantegiko egoera larria aurretik ezagutzen nuelarik, berehala jakin izan nuen Mark-ek lana galdu egin zuela. On-

dorioz, bere etsipena edaritan itotzen hasi zen eta laister, auzoko mozkorti guztien taberna-zulo hartako bezero ziurra bilakatu zen. Aurrerantzean oso gutxitan ikusten genuen etxean eta etortzen zenean, alkoholaren pozoinak eraginik... askotan ezagutu ere ez ninduen egiten eta aurpegi eta gorputz guztia ubeldurik utzi arte ez zen bere barrengo sua itzaltzen; baina une hartan, Mark-en kolpeek baino bere etsipenak min gehiago ematen zidan.

Behin, bi polizia etorri zitzaizkidan etxera eta inongo lotsarik gabe, nere senarra mozkorturik kalean zehar zihoalarik kotxe batek harrapatu eta hil egin zela esan zidaten. Ondoren, eta nire malkoez gupidatu gabe, hilobiratzea eta egiteko dirutza bat ordaindu erazi zidaten eta, besterik gabe, alde egin zuten.

Behin ekaitza hasiz gero hodeiak hustu arte ez omen da geratzen eta guri ere hori gertatu zitzaigun; izan ere, zorigaitzak bata bestearen atzetik etengabe zetozen. Senarrarenarekin nahikoa ez banuen, orain nere bigarren semea zen Mike gaiso jarri zitzaidan eta neumoniaren aitzakiarekin Jainkoak zerura eramane zidan.

Bizitza aurrera zihoan, nik ez nuen zorionaren itxaropenik eta zoriona zer zen ere ahazten ari zitzaidan, baina hasi nuen burruka bukatu egin behar nuen... eta honela, egunero etxe batego zolua risti-rasta xaboi eta urarekin igurtziz ordu luzeak igarotzen nituen diru piska bat atera ahal izateko. Nere bi semeak, berriz, diru gutxirekin baina oso ongi heziak zeuden eta hauek ziren nire itxaropen bakarra.

Behin, nire urtebetetze egunean, txirrina jo zuten; ez nuen inor gogoratzea espero, ni neu ere ez bait nintzen gogoratzen. Baina hala ere, atea ireki eta... John zen eta polizia batek giltzapeturik modu txarrean zekarren. Poliziak ea nere semea zen galdetu eta bitxi denda batean lapurtzen saiatu zela eta, besterik gabe, kolpeka eramane egin zuen. John gaisoa lotsaturik ez zen ezer ere esaten ausartu eta nik ere, bestalde, ezin izan nion ezer

ere esan. Baina orain... gartzela bateko gela zikin batean sartu eta ez nuen gehiago ikusiko; eta bizitzan egin zuen bekatu bakarra gizarte arrazista eta materialista hari ezin erantzun izatea eta amarentzat berak munduko edozein bitxik baino balio handiagoa zuela ez konturatzea izan zelarik... Eta nik zer egin nezakeen?... isildu eta negar isil batean murgildu.

Bruce zen nere azken itxaropena baina, piskanaka, auzo zikin honetako kale beltz hauek xurgatuz, nere seme izatetik kalearen seme izatera pasa zen, etxera diru bila bakarrik agertzen zelarik. Baina azkenerako, aberatsen zoluak garbitzeak eskaintzen zidan soldata ez zen nahikoa nere semeak mundu zoragarrian sartzeko behar zuen sarrera ordaintzeko eta ondorioz, nere semearen mehatxuak ugaritu egin ziren; baina ezin nion nuena baino gehiago eman.

Dagoeneko askotan mehatxatu nau heriotzarekin, baina zer axola dit neri heriotzak? Pozik emango nioke ongi etorria eta, dagoeneko ez bait dut bizitza honetan jarraitzeko motiborik, baina... hil behar badut ez dut nahi nire semea izatea eskuak nire odolarekin zikintzen dituen, honek bera ere seme zaharrena sartu zuten zulo berean sartzea suposatuko lukeelako. Beraz, eta gertakizun honen bildur naizenez, nire semearen asmoei aurrea hartzea erabaki dut.

Rudhy

Tom-en begi urdinetatik bi malko lodi erori ziren, idazlearen sinadura laino urdin bihurtuz. Orduan nagusia etorri zitzaion:


—Tom, ez da hiltzailerik egon, hildakoa izan da bere buaren eraile bakarra.

—Badakit —esan zuen ahots ahul batez Tom-ek.

—Jesus! Nola zabaltzen diren berriak!!! Andre gaixoa!!!...
Ba, munduak ez du gauza handirik galdu, zorigaitzeko andre beltz zikin bat besterik ez zen eta... —esan zuen nagusiak.

Tom-ek hitz hauek entzun zituenean, bi begi samur haiek bizitzan lehenago isladatu ez zuten gorroto batez begiratu zioten nagusiarri. Baina Tom-ek ez zuen ezer esan; buelta eman eta Rudhy-ren egunkaria besapean zuelarik alde egin zuen... taxi hori bat hartu eta hiriko gartzelara abiatu zen Harrison-dar baten bila...

kkkkkkkkrrrrrrrrrrriiiiiiiissssssssssssgggrrrrrrrrrsss!!!!!!...
Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!!!! hau logurea... fil-
mea ikusten geratu eta... erdia ere ez dut ikusi... aaaaaaaa!!!
lotan geratu naiz... Baina zin egingo nuke filme hori lehenagotik
ere nonbait ikusi dudala.



Boga-boga sareetan

Xabier Churruca Fernandez
Sta. Maria Ikastetxea
DONOSTIA

Munduko edozein moiletako edozein tabernatan zen. Kanpoan, iluntasuna nagusi. Barruan, ordea, gaueroko giro astuna arrantzaleen artean. Egun gogor hari behar bezalako amaiera emateko hantxe elkartzen ziren edariz eta kez inguraturik.

Urtearen edozein hilabetetako edozein egun zen. Taberna bete-beterik zegoen. Bertako mahaietan, itsasgizon zaharrak, barrua guztiz bustirik zutelarik, munduko arazo larrienei irtenbide bat aurkitzen saiatzen ziren. Beti berdin goizaldeko ordubiak edo eta hirurak arte.

Barran, gizon bat bakarrik. Azken egunetan gauzak gaizki joan zitzaizkion eta han zegoen estu eta larri, lotsaz, bere burua non gorde ez zekielarik. Bazeramatzan zenbait gehiegizko zurrut eta hura bai ez zela gizon itxura. Tabernariak etxera itzultzea aholkatzen zion, baina marinela ez zion kasurik egiten. Gero eta gehiago kargatzen ari zen. Bazirudien gau hura gaizki amaituko zuela. Guztiek zuten gizon haren alkohol zaletasunaren berri, baina inork ere ez zuen espero horrelakoetara iritsiko zenik. Herritarren artean «Patxi Mozkor» izenordepean ezaguna zen tipo xeblere honek zera zioen bere buruari:

«Ni ez naiz inor, gu ez gara inor, zuek ez zarete inor... inor ez da inor! Zertarako gara? Nik ez dut ezertarako balio. Mundu

zakar honen zabor zikin bat besterik ez naiz; etxera joan eta nire emaztea arrazoirik gabe jo egiten dut. Nere semetxoa beldur da. Ikastolan «mozkorraren semea» deitzen dute... Gainera, noiz izan zen etxera soldata garbi bat eramane nuen azken eguna? Noiz izan zen nere emazteak emandako azken musua? Inork ere ez nau maite...».

Hasieran bere buruari esaten ziona, piskanaka-piskanaka ahoskatzen joan zen, ozenki eta garbi entzuna izatera iritsi arte. Bere gorputza burutik guztiz deselkarturik zeukan eta ez zen hanka eta eskuek egiten zutenaz ohartzen. Bere pentsamendu guztiak argi keinukatzen zituen. Bazirudien bere inguruan zituenen begiradak eskatzen zituela. Baina, funtsean, hori baino zer-bait gehiago behar zuen: adiskidetasuna. «Patxi Mozkor» zulo beltz baten erdian zegoen. Marinelen sareak baino askoz ere maltzur eta gaiztoago ziren beste sare lodi batzuetan nahasturik zebilen. Zorigaiztoko gizon hark laguntza oihuka eskatzen zuen. Inor ere ez zen hari bere arazoak entzuteko gai. Beste marinelek han jarraitzen zuten musean, karga-karga eginda.

Patxik beste botila ardo bat eskatu zuen. Tabernariak nahiko ongi ezagutzen zuen gizarajoa eta, bere bizio gaitza jakinik, berriro ere, dena utzi eta etxera itzultzea aholkatu zion. Mozkorrak tabernaria lepotik hartu eta marru biziz botila bat eskatu zuen. Honek ez zuen beste irtenbiderik izan. Mehatxu gogorren artean, isurkin bizigarria eman beharra izan zion.

Marinel zaharra, hondoan, beldur eta lotsati zen. Ordu haie-tan etxera hala itzultzeak beldurtzen zuen. Egoera berean aurkitu zen azken egunean, kalean egin zuen lo. Bere emazteari zer egin liezaiokeenaz ez zuen arduradun izan nahi. Etxera horrela itzultzen zen bakoitzean, nahiz eta gaitzik egin nahi ez, dena beti haurraren eta emaztearen negarren artean amaitzen zen. Egoera hark ezin zuen hala jarraitu. Egunen batetan guzti hura amaitu

beharra zegoen. Familia bat mantendu beharra zeukan eta ezin zezakeen irabazten zuen diru gutxi hura biziotan gastatu...

Baina gizongaitz hark han jarraitzen zuen, barraren, zutik mantendu arazi ziezaiokeen euskarri baten bila. Burua astunki, karga-karga egina zeukan, baina oraindik bere andreak semearekin ospa egiteko egin zion mehatxuari bueltak emateko gai zen.

Hirurogeitaka urteko ile zuridun marinel haren begizuloek mozkorkada astun bat baino gehiago adierazten zuten. Inork eskaini beharko liokeen laguntza noiz iritsiko zain zegoen. Baina gizon hari zerion alkohol kiratsak eta berari buruz asmatu ziren entzute gaizto guztiek haren inguruko denak urrundu egiten zituena.

«Zer pentsatuko ote du nitaz nere semeak? Zer ikasiko du bere aitaren deskalabruen artetik? Betirako izan beharko ote du mozkorraren semea? Hau dena aldatu nahi nuke. Ardo gorri hau neretzat pozoin bat besterik ez da. Nire barrukaldea garbitu behar dut. Dena alde batera utzi, eta bizitza berri bat hasi, eta...».

Baina gauza bat zen bere nahia eta bestea bere egitea. Gorputza ez zen buruak pentsatutakoa jarraitzeko gai. Zegoeneko alkoholizatua zen. Bizitzeko bere beharra zeukan. Sare sakon haie-tatik ateratzea gero eta gehiago kostatuko zitzaion. Itsasoko korronte gogorrek bihurritzen zituzten heinean, bertan egiten ziren korapilo zahar haietaz aske geratzea inoiz ezinezko irudituko zitzaiokeen.

Bigarren botila hura ere zurrutez zurrut hustutzen zihoakion. Patxirentzat, egoera hartan, botila ardoa garbi geratzea, marinel on bati munduko ur gazi guztia kentzea bezala zen.

«Nire bizitza osoan, lagun bat, benetako lagun bat bera ere izan al dut? Nor izan da nere estutasun eta larrialdi uneetan laguntzatxo bat eskaintzeko prest? Beti alkohol zahar honen iluntasun faltsuan izkutatu naiz nire nahigabekerietatik ospa egiteko

asmoz. Ihes egitea edo eta oraindik nahigabekeria haundiagoei lotzea... zer da alkohola? Zulo bat».

Hauxe zioen mozkorrak bere izateari buruz. Gero eta gehiago berotzen zihoan. Laister bere isladurak inguruan zituen itsasgizonei zuzendutako mehatxu bihurtu ziren. Beren laguntza eza «goraipatu» zuen. Tabernariak, lasaitasun pixka bat eskatzeko zuzendu zitzaionean, barra azpira makurtu beharra izan zuen Patxik jotzera bota zion botila hutsak bere helburua lortu ez zezan. Marinelaren haserrea eta mozkorra ezinikusi eta amorru bihurtu ziren. Arduragabetasun egoera hartan, eserita zegoen aulkia hartu eta eskuetan zuela, parean aurkituriko guztia txikitzen hasi zen marruka.

Berehala bota zitzaizkion gainera beste itsasgizon guztiak, menperatzea lortu zuten arte. Patxik ezin izan zituen barruko nerbio gogorrak eutsi eta bere kideen artean preso aurkitu zenean, negar egin zuen. Ez zen bere hutsegite hari erantzunkizunik agertzeko gai izan: Frakasatu bat zen.

Bi tipo indartsuren artean mozkorra kalera bota zuten. Ez zuten horrelakorik nahi. Bere kideek ere hutsunea egiten zioten. Inork ere ez zuen nahi...


Kanpoan, zeruko ilargi beteak ez zuen kalea nahiko argitzen. Izarrak ezkutatu egin ziren. Patxik ezin zuen bere gorputza zutik eutsi eta halabeharrez zerbaiti heldu beharra zuen aurrera egin nahi bazuen. Baina, aurrera, nora?

Ikusmena ez zuen guztiz garbia eta dena oker agertzen zitzaion giro lainotsu baten erdian. Ezpainetara zetorkion gesala zuela gutxi edan berria zuen ardoaren ahogozoarekin nahasten zitzaion. Hura ez zen gizon planta: Kalearen ezker aldetik eskuin aldera balantza bizian, zotinka, noraezean...

Kaleko farol bakarrak marinelaren gain botatzen zuen argiak eragindako itzalak bazirudien ez zituela bere jabearen pausoak

jarraitu nahi. Honek ere utzi egin du. Kanean zehar, bere aurretik, katu beltz bat miauka igaro zaio. Patxiren hankek lurreko harriekin estrapuz egin dute eta han joan da gizarajoa buruz behera. Nola hala altxa eta bere bidea jarraitzeari ekin dio. Emaztea eta semea datozkio burura. Inoiz lortuko ote du beraiekin berriz pozik elkartzea? Gaur behintzat ez da izango.

Moileko lurrean zeuden sareekin nahaspilatu eta bertan etzanda. Hantxe bertan igaroko du gaur gaua. Eta bihar?



Isilpean bego Anttonen itxura

Ainara Artetxe Arrien
Batxilergo Institutua
GALDAKAO

Goizaldeko ordu bietako isiltasun eta lasaitasuna apurtu nahirik dabil norbait:

—Lalariloooo, lalarolo-riloooo, gauhontza naaaiz. Ujujuuuu, ujujuuuu, gauhontz honek farolarekin buruan jo duuuu. Je, je, je, je! Orain txorabiatu dagoo. Ujujuuuu, ujujuuuuuu!...

—Arraioa. Nork jaiki erazi nau? Mozkorti txatxua! Goizaldeko ordu bietan botila eskuan eta oihuka ibiltzea ere! Horrela jarraitzen baduzu, lo faltaz, izugarrizko betazpiak haziko zaizkit, nire aurpegi liraina galdu eta mutil zatarra bihurtuko naiz. Alde hortik eta isil zaitez behingoan! Ontzikada bat ur hotz botatzerik nahi ez baduzu!

—Aguuurr, banoaaaa, kaskarin horiiii. Ujujuuuu, ujujuuuu. je, je, je, je!...

Ohetik jaikitako hogeituro urteko mutil harroa, itsu-itsuka eta argia piztu gabe, haserre bizian ohean sartu eta loak hartu du. Une horretan gure pertsonaia nagusia hizketan hasi da:

—Nola aldatu den mutil hau! Harritzekoa benetan, ezin dezaket sinetsi ere egin! Nola maitemin nintekeen mutil harroputz horretaz?

Gogoratzen dut bai, ... ni gaztea nintzenean —berak urte bete baino ez zeukalarik— amak janaria prestatu bitartean, Antton katuka-katuka —sagu bat bailitzan— etxe guztia goitik behera eta eskuinetik ezkerretara ikusmiratzen hasi zenekoa. Berak dena ikusi eta jakin nahi zuen, adin horretako elementuek ohi duten bezala.

Orduan ni etxe honetara etorri berria nintzenez, ez zekiten non jarriko ninduten. Hau zela medio, lurrean aurkitzen nintzen hormaren kontra sostengaturik.

Jadanik asperturik nengoen hankak eta hankak ikusteaz, horregatik, Antton lako pilota nimiñoa begiztatzeak poztu eta era berean haren jolas-lagun bihurtzera behartu ninduen. Nik —nigan normala den bezala— bera nolakoa zen erakutsi nahi nionez, bere itxura fisikoa nire adimenarekin irudikatu nuen.

Berehala, Anttonen fisikoa neure gorputzean isladatu zen eta Antton erabat txunditurik, kontu handiz hurbildu zitzaidan, oraindik ez bait zen bere isladapena ezagutzeko gai. Gero bere aurrean zekusan mutiko txiki, pottolo, beltzaran eta begi urdinduna ikutu nahirik, bere eskua nireganantz luzatu zuenean... PLAST! Neure gorputz leunarekin topo egin eta barre inuzente bat irten zitzaion.

Ondoren, nire gorputzean isladatu nuen irudia miazkatzeari ekin zion —ziur nago gehixeago busti izan banindu ttua bukatuko zitzaiokeela—.

Geroztik, egunero-egunero, elkarrekin jolasten genuen. Zazpi urte beranduago Anttonen gelan eskegita nengoen. Arazoak zituenean nire aurrean jarri eta nik isladatzen nuen irudiarekin hizketan iharduten zen; horrela, ni nintzen bere barne arazoak zekizkien bakarra. Zeren eta azken batez, Anttonek nire adimenak sortutako irudiari eskaintzen bait zion bere intimitatea.

Orain, pentsatzen hasi naizela... honek beste gertaera bitxi bat dakarkit oroimenera: bere urtebetetze aurreko egunean ohean sartu nahi ez zuenekoa. Aitak, ohean sartzen bazen, hurrengo egunerako asko haziko zela esanez konbentzitu zuen Antton. Eta hurrengo goizean, esnatu bezain laister, Antton presaka etorri zitzaidan aurrera, aitak esandakoa baieztatzerako. Eta noski! Nik ez nuen Anttonen aita gezurti baten antzera utziko. Horregatik, adimenarekin Anttonen itxura zuen mutiko bat imaginatu nuen baina bera baino zerbait garaiagoa, eta nire gorputz distiratsuan horixe agertu zenez, Antton saltoka eta oihuka hasi zen, garaiagoa zela uste zuelako. Une horretan zera erregutu nion Jainkoari: «Ez bedi gaur bere lagunekin konpara, bestela aita gezurtizat hartuko du, eta baita ni ere».

Horrelako makina bat gertaera igaro ziren, eta Antton hazten zihoan heinean bere izakeraz maiteminduz joan nintzen. Hain zen apala! Hain zen delikatua! Ah!... Baina fisikoki ez zuen inolako erakargarririk, ez zen batere xarmanta.

Dena dela, Antton nire aurrean jartzen zenean, nire adimena erotu egiten zen. Horregatik, gero eta fisiko ederragoarekin isladatzen nuen Antton —agian, nire bihotzak horrelakoa izatea desio zuelako, eta gainera, horrelako aldaketak egin nitzakeen Anttonen irudian, berak ez bait zuen sekula bere isladapena beste toki batetan begiratzeko—. Piskanaka-piskanaka, Antton, nik isladatzen nuen mutila bezain galanta zela pentsatuz, guztiz harrotu zen. Gau eta egun nire aurretik paseatzen zebilen, gaur egun ere pinpirin-pinpirin jarraitzen duelarik.

Honez gero, bere harrokeriak nire maitasuna galerazi dio. Horren tentela bihurtu da!... Bihotzari gabe ikusmenari kasu egin izan banio Antton mutil apala izango zatekeen.

Baina... zer egin dezaket hasieran zen mutil apala bihur dadin? Nola ordain eraziko diot Anttoni, bera horrela ikusteak eman didan mina? Zerk alda eraziko du berriz bere izaera? Bada..., nola lor dezaket hori? Nola, nola, nola,...

Goizeko zortzirik iritsi orduko gure pertsonaiak aurkituko zuen bere galderen erantzuna.

—Triiiiiiiiiinn! Triiiiiiiin! Triiiiiiiin! Tr klak!

—Aaaai. Zelako logura! Nolako astakirten piura edukiko dudan etengabe hazten zaidan bizarrarekin eta lo egitean harturiko postura txarren ondorioz. Aaaaaa...

Ezer egin baino lehen daukadan itxura begiratuko dut.

Anttonek, bere itxura ikustearekin batera, garrasi egiteko gogoak sentitu zituen, baina eztarrian korapilo bat sortu zitzaion, ahotsa galduz. Segundu batzutan mugitu ezinik gelditu zen, marmolezkoa zirudien, zurbil, txunditurik, bere begiek zekusatena sinetsi ezinik. Behin erreakzionatu eta hitz egiteko ahalmena lortutakoan zera murmuriatzen hasi zen, ezezaguna zitzaion bere benetako isladapenarengandik urrunduz:

—Ez, ez, ez... ni ez naiz hori, ezin naiteke horrelakoa izan..., ezinezkoa da... Ni ez naiz horko mamu hori... ez! Ez! Eeeeezz!!!


Antton, bere eromenean, senetik irtenda, gelako hormari ostikoka hasi zitzaion, haserreak baretu zituen arte.

Azkenean, etsipenez, lurrean jezarri zen, estasian, bere begirada urrunean galtzen zelarik.

Bizitza guztian zehar egin zuen bezala, ez zuen beste ispilu guztiek erakusten zuten isladapena ikusi nahi izan. Beldur zen, isladapen zatar hura bere benetako isladapena izango ote zenaren beldur zen.

Nolabait, Anttonez maitemindurik zegoen ispilua, Antton bere benetako itxurarekin ezin zitekeela bizi konturatu zen. Horregatik, egun bakoitzean isladapen ezberdin bat irudikatzea erabaki zuen. Antton, itxura ezberdinak edukitzera ohitu zenez, gizon apal eta zoriontsu bilakatu zen, bere gelako ispiluak bertirako maitemindurik jarraitu zuelarik.

Eta Antton larogei urterekin hil zen, **BERE BENETAKO ITXURA ZEIN ZEN JAKIN GABE.**



Zerutar inperioaren zedean

Jaione Franko Sudupe
Garaialde Lizeoa
URRETXU

Natura hutseko erregetasun bare eta handitasun basatiez beteriko lurraldeetan, egun hotz eta eguzkitsu batetan, Chomo Lungma, Himalaya eta mendi gailur elurreztatu, izoztu, leitu, jelatu eta distiratsu guzti haien zurtasuna mugaezina zen egun haietako batetan, urrezko itxurako jauregi handi, eder eta distiratsuan, ekialde urrunean hain arruntak diren eraikuntzen ordezkari leiala izanez, Gnam Ri Srong errege tibetarraren jauregian, Srong Btsan Sgam Po haurra jaio zen, erregearen semea; eta handik hiruzpalau mendi lerro urrunago, etxe txiki, apal batetan, Tsong izeneko haur txiki eta sotil bat.

Jauregiko gela urreztatuan, urrezko esekiez inguraturiko kuxta antzeko ohetxo eroso eta bigun batetan printze txikia lotan zegoela, buruan hornidura bitxi batzuk eta soinean janzki zabal, gorriska eta lazoz beteriko bat zuen haurtzain batek sehaska kantu isil bat abesten zion, musika notak jauregi aberatseko isiltasunean murgilduz.

Etxetxo apal, baju eta zabalean, ate laxakorrez itxiriko gela zuriaren barrenean, egurrezko sehaska txikian, emakume gazte eta eder baten asmoa, maitasun eta gozogiro osoz, negar egiten dagoen haurtxoa lasai eraztea da, bere alboan, haurtxoaren aita duelarik, bere seme politaren antzekotasunak nabaritu nahian,

bere aurpegi zabaleko masailalboen atzean kokaturiko begien bidez.

Jauregiko saloi handietan, erregearen aurrean, gizon adintsu bat ageri da, errege izateko jaioa den haurraren etorkizuna auresanez.

—Printzeak arima bikia du, jainkoek eskainia eta hemendik urte batzutara bere bizitzan sartuko dena.

Urteak pasa ziren eta gizon adintsu, ile zuri eta bizar luzedun hark garai batetan esan zuen unea oso gertu zen.

Printzeak, hamabostgarren urtebetetzean, desio bat eskatzeko ahalmena zuen, edozein izanik ere eskuratuko zitzaiolarik.

Printzeak bere desioa aurkeztuko zuen zeremonia aurretik, jauregiko zirrikiturik txikiena ere zurrumurrus beterik zegoen.

Erregea erabat etsiturik zegoen, bere semea ondo ezagutzen zuela eta bere adinekoekin bat zetorrenez, berarekin ezkonduko zen neskatxa bat eskatuko zuela eta horregatik, neskatxa piloa zuen ekarria gazteluko alde debekatuan izkutatuz. Jauregi guztian zehar oso lanpeturik zebiltzan erregearen morroiak, eztaietako prestaketak eginez.

Baina printzearen buruan ez zebilen halako burutapenik, lurralde haiek, egunen batean bereak izango zirenak, bakarrik eta inongo laguntzarik gabe zeharkatzea baizik. Hura bai iskanbila!

Erregearen bihotz barrena poztu eta harrotu egin zen, baina egin behar izan zituen prestaketa guztiak, eta are gehiago, bere susmo guztiak okerrak zirela ikustean, haserre bizia sartu zitzaion gorputzaren hondoraino. Semeak, aitaren nahigabea ikusirik, etxera berriz itzultzean ezkonduko zela agindu zion. Aitak berriz, laister uxatu zuen huts egite harengatik zuen haserrea bere semearen ausardia eta kemena ikusirik.

Era berean, Tsong gaztea, bere oparia jasotzen ari zen bere aitaren eskuetatik: gizaldietan zehar eskuz esku emana izan zen Chomo Lungmaren adierazpena zuen urrezaturiko lepoko bat, bere aitzindariari bezala, egunen batean beharrezkoa izango zitzaiena.

Egun handi hartako gauean, haizea indarkiro jaso zen. Hotz handia zegoen izarpean; beraz, jendea etxeetan sarturik zegoen.

Tsong-ek kanpoko argi ontziaren tranbala ikus zezakeen, lotarako prest egon arren, gau zaratatsu hark lo egitea eragozten zion bitartean. Piskanaka-piskanaka bere begiak isten joango ziren, erre usaina bere sudurrean barrena sartu arte.

Kolpe batez begiak ireki eta bortizki altxatu zen ohetik, presaka eta korrika aterantz alboratuz. Etxea erretzen ari zen, sugarrak gurasoan gelaraino heltzen zirelarik. Sugarren beste aldean bere gurasoak ageri ziren erabat izuturik eta elkarri eutsiz. Tsong-ek dei egin zien. Aitak lehenbaitlehen handik ateratzeko agindu zion. Tsong-i masailetatik behera, sute hura itzali nahiez, malkoak labaintzen zitzaizkion, egur zati batez leiho bat puskatzen zuen bitartean.

Kanpora irten zen eta zer egin jakin gabe zegoela oihu garraz bat entzun zen etxe barrenean. Ondoren, guztia, isiltasun mingotsenean murgildurik geratu zen. Tsong, etsiturik, lurtean etzan zen hurrengo goizerarte.

Eguzkia berriro ere zeru zabalean zegoela, Tsong-en begiek kiskaliriko zur zatiak besterik ez zituzten ikusten. Izuturik, bere aurpegian goibeltasuna nabari zelarik, korrika aldegin zuen inguru hartatik, gauean ikusiriko argi ontziaren oroitzapena burura zetorkiola. Argi ontziaren tranbalarengatik zegoen bera orain egoera hartan.

Han, urrunean, Chomo Lungmaren elurreztaturiko gailurrak argi distiratsuzko izpiak bidaltzen zituen lurralde haietako za-

balera guztian zehar. Nam lakuak ere ez zirudien izpi jolas hura uzteko asmoa zuenik eta bertako urak dirdira eta keinuak bidaltzen zituen zero zabalerantz.

Tsong-ek ez zuen norantz joanik, ez zuen non egonik, ez zuen iristeko betarik; noraezean, ibiltzen hasi zen, egun hartako lagun bananduezina bere bihotzeko samindura zuela.

Egunak joan eta egunak etorri, Tsong, amildegia estu, lurralde laiotz, lainotu, ilun, itzaltsu, beldurgarri, jelatu eta natura anker batez estalirik lurraldeetan zehar igarota zen, baita paisaia ederren artean, bere lurraldeetako landaretza urri baina bitxiaz hornituriko lurraldeetatik, zero urdin, elur zuri, eguzki distiratsu eta haitz ilunbetsuen kontrastak aurrerazartzen ziren horietakoetatik.

Baina bere orainarteko bidean zehar, bertan izan zuen gauza bakarra isiltasuna zen, noizbehinka amildegietako haitzen zirrikitu eta hutsuneetan zehar igarotzen zen haizearen ziztu eta xuxurlek isiltasun sakon eta mugaezina eten arte.

Azkenik iritsi zen Nam lakura. Nam lakua, ama naturak tibetar paisaia alde batetara uzten ez zuen paisaia gutxietako bat zen. Laku handi haren ertzetan etzanik, Tsong-ek bere bihotz taupada goibelak entzun zitzakeen.

Nam lakuko ur talkari talde talikatu eta tilingoen hotsa zen zarata bakarra, oin hotsak Tsong-en entzumenaren barnean sartu arte.

Srong-ek ere, Tsong-en antzera, leku beldurgarri eta izugarriak igaroak zituen eta baita paisaia liluragarri eta handiak ere.

Bere erregetzapean egongo ziren hiri ugarietatik igarota izan zen eta nahigabe, pozak nahasturiko uneak ere bere buruari ezagutzera emanaz.

Bidaia luze hauetako egun hotz eta euritsu batetan, agure jakintsu batek hartu zuen bere etxean gonbidatu bezala. Gaueko sutondoko gar kiskaldu, erre, txingartu, zizpilduek ateratzen zuten hotsa nagusi zelarik, maitasuna eta jakinduriaren landare bitxi eta aurkituezin batez mintzatu zitzaion. Baina inork ez zekien landare hori non aurkitzen zen eta bakarka ahalegindu ziren guztiak, inoiz ez ziren berriro euren etxeetara itzuli.

Srong-en abenturazaletasuna une horretantxe iratzartu zen.

Eta Nam lakuaren ertz miresgarriki belartsu eta leunean etzanik, bi gazte ageri ziren.

Denbora luzea iragan zuten hodei zuriei begira eta bakoitza bere bideari ekitera zihoala, hodei artetik eguzki indartsu bat agertu zen, Tsong-ek zuen lepokoa eta, harrigarriki, zeinu berdina zuen Srong-en ezpata distira hori batez inguratuz.

Orduan ohartu ziren bi gazteak bidaia hura biek batera egiteko aukeratuak izan zirela, euren bizitzak elkarrekin igarotzeko sortuak izan bait ziren.

Sasoi haietako gardentasuna ur garbi eta kristalduetan isladatzen zen Nam lakutik, piskanaka-piskanaka urruntzen joan ziren, Chomo Lungma-rantz, hura bait zen garaietan hazten ziren landareen benetako erreinu miresgarria.

Lurralde altuagoetan gauak izarretatik gertuago eta egunsentiak eztiagoak agertzen ziren leku haietan, errekaak, ibaiak eta lakuak, ur ibilkari eta lehiatiz hornitzen ziren lurraldeak ezagutu zituzten, haizea bizkorragoa eta paisaia latzagoa izanik.

Elur zuri argiak nor bere presentzia egiten zuen lurralde garaietara heldu ziren eta amildegia geroz eta ugari, estu eta sakonagoak ziren.

Tsong eta Srong-ek bizitza eta naturaren miresgarritasuna ikasten zuten bitartean, beraien adiskidetasuna areagotzen ari zen

eta ordurarteko Srong printze harroa, ez zuela inoiz askatasuna ezagutu, ez zuela inoiz hegalaldia zer zen ezagutu, ez zuela inoiz zoriona zer zen ezagutu konturatu zen; betidanik izan zela aginduak ematen zizkien haien morroia. Tsong-ek aldiz, bizitzaren garrantzia eta bizitzen jarraitzearen nahia bereganatu zuen; zeren, azken batez, inork eduki dezakeen gauzarik liluragarriena bait da.

Zeru ertzean kokaturiko lurralde lehor eta leituetan barrena sartu ziren bi mutikoak.

Yak saldoek garaiera haietako bideska harritsueta zapalztean, haitz kraskatuen zatiak krudelki beheruntz bidaliak ziren, kresalean kridetasunez krater antzeko zulotxoak eginez.

Yak saldoa gidatzen ari zen artzain bat topatu zuten bidean. Zegoeneko erabat nahastuak zeuden hartu beharra zuten norantza zela eta. Horregatik artzain zaharrari landare bitxi horri buruz galdetzea bururatu zitzaion.

Paraje haietako lur lehorra bezain hezea zen bere aurpegia. Mandril itxurako aurpegi zorrotzak eta masailalbo irtenek, egunsentia eta eguzkibetea nahasturik agertzen zen azal horiska eta gorriskarekin bat egiten zuten. Ile beltzek, gau sakonaren zoria erakusten zuten, begirada tinko eta zorrotzaz lagundua, denboran zehar galdu nahirik.

Lurraldea ondo ezagutzen zuen, mendi guzti haiek bezala, bera ere, han izan bait zen, harrapaturik, beste inora joan ahal izan barik, bere herriaren ohiturazko sustraiengatik. Landare hartaz, istorio eder eta hits bat kontatu zien.

«Edo mendiak, edo itsasoak, edo lautadak, edo basoak zeharkatuz, “Maitasun” izeneko printzesa bat lurralde hauetara etorria zen, berarekin landare lerden, mardul eta bitxi bat zekarrelarik.

Bertan, “Jakinduri“ izeneko gazte batetaz maitemindu zen, baina jendearen ezinikusia eta gorrotoa zela medio, Chomo Lungma-rantz aldegin beharra izan zuten.

Ama naturak, euren amabitxiak, leku zoragarri eta galant bat eskainia zien, naturaren gauzarik eder, liluragarri eta miresgarrienez inguratuz. Eta han erdi-erdian, printzesak ekarririko landare bitxia zegoen, bi gazteen zoriontasunaren seinale.

Gau laiotz batetan, mundua gorrotoz gainezka zegoela, jende bekaiztiak bi gazteen bizia akabatu zuten, baina inoiz ez zuten euren arima suntsi ahal izan, ezta ere beraien maitasunaren frogarik indartsuena, landarea. Ama naturak leku babestu eta zeharkagaitz batetan ezarri zuen, landare horren hiru esanahiak zituzten pertsonak baizik igaro ezin ahal izango zuten lekuan. Landarearen hiru esanahiak, maitasuna, jakinduria eta zoriona ziren.

Ordutik jende asko ibili da landarearen bila baina aurkitu ezinik; etsi egin dute bizirik iraun ahal izan dutenek».

Artzain zaharra samurkiro istorioa kontatzen ari zen bitartean, bi mutikoen bihotzak, tristetzen, goibeltzen, samintzen ari ziren.

Ilunabar argia izan zen egun hartakoa, baina gaua inoiz izaniko hotzena izan zen. Bi mutikoen gorputzak jelatzeko moduko izotza egiten zuen, baina ama naturak bazekien bi gazteen adiskidetasuna beroegia zela; beraz, laisterka bidali zuen egunsenti ezta mutikoak iratzartzera eta baita lortu ere. Ama naturak bazekien biek batera laister asko aurkitu ahal izango zutela landarea eta labor izango zen unea.

Honela bada, egun zoragarri hartan, bi mutikoak Chomo Lungma-rantz abiatu ziren. Eguzkiaren izpiek mutikoen bihotzak berotzen zituzten, errainu handi eta erakargarri batek Tsong eta Srong-en lepokoa eta ezpata distira erazi arte.

Lepokoaren eta ezpataren errainuek elur artean ezkutaturiko kobazulo baterantz gidatu zituzten gazteak. Zalantza une baten ondoren, bi gazteak kobazuloan barrena sartu ziren eta...

Ene! Hura zen distira!

Era guztietako animalia koloredun eta alaiak, baso eta zelai argi eta berdeen artean korrika zebiltzan, lore bitxi eta aintza izpiez beterikoak zeuden, inoiz zapaldu gabeak zituzten lur malgu eta atseginezko paradisu bat topatuz.

Eta han, erdi-erdian, artzain zaharraren istorioak zioen bezala, Maitasun eta Jakinduri gazteen zorionaren froga suntsiezina zen eta belaunaldika birsortzen zen landare bitxia aurkitu zuten. Hain zen ederra, liluragarria...!

Bapatean, arazo batekin aurrez-aurre topo egin zuten bi gazteek, miresgarritasun hura alde batetara utziz. Zer egingo zuten orain landarearekin? Paradisu hura ederregia zen landarea handik urrundu eta miresgarritasunaren erdia harkaitz eta lur lehorrez inguraturiko lurraldeetara eramateko.

Garrantzitsuena, bien adiskidetasuna bidaia horretan zehar frogatua gelditu izana zen, zoriona, maitasuna eta zuten jakinduriaren bidez hainbeste desiraturiko landarea aurkitzean.

Beraz, jokabiderik zintzoena, landarea paradisu horretan belaunaldika birsortzen jarraitzen uztea iruditu zitzaien eta baita hala egin ere. Lehenik mundua aldatu beharra zegoen eta beharbada orduan, landarea gizakiei agertua izango zitzaien.

Hemen duzue bi gazte horien maitasun eta batez ere jakinduriaren froga zuhurra.

Eskerrekotasunez, ama naturak hodei zuri, malgu bat eskaini zien, jauregira lehenbaitlehen heldu ahal izateko eta hala, zintzotasunez eta lehialtasunez biek batera lurralde haietako biztanleak bide onetik gidatu ahal izateko.


Jauregiranzko bidean, Yak saldoen zaindari zen artzain zaharra ikusi ahal izan zuten eta baita igarotako amildegiak, haitzarteak, errekaak, ibaiak eta Nam lakua ere. Baita Tsong-en etxe kiskalia, gaztea abentura hartara bultzatuko zuen sutearen ondorioz errea eta Srong egona zen hiria ere, agure zaharrak emandako ongi etorri haren bidez, landare miresgarriaren berri eman zioneko hiri berbera, eta azkenik, jauregi urreztatua. Srongek hain samindurik aita utzi zuen etxea eta aurrerantzean bere erreinuaren muina izango zena.

Oraindik inork ezin omen du landare hori aurkitu ahal izan. Beharbada ez da oraindik mundu hau maitasunez bete! Edo behintzat, bete beharrean, estali! Gorrotoa nagusi dela ote? Natura suntsitzeko dugun eranspena ote? Zer deritzozue, lagunkidetasun eza? Benetako zoriontasun eza?

Beharbada azken bolada honetan zertxobait hobetu da mundua, baina, nahikoa ote? Oraindik ere gogoz ahalegintzen jarraitu beharko dugu mundu hau aurrera maitasunez eta adiskidetasunez ezarriz, mundu suntsiezina sortuaz. Geuregatik ez bada, behintzat bakoitzaren bihotzean dugun landare miresgarri hori zimeldu eta usteldu ez dadin.

POESIA. A maila

B.B.B.ko 3. kurtsoa, UBI,
L.H.ko 2. gradua eta
I.E.E.ko 2. zikloa.



Amodio gorrotagarria

Asier Oiarbide Aldasoro
Alkartasuna Lizeoa
BEASAIN

Amodio baten pozak
berekin duen tristura,
eta tristuraren orratzak
egiten didan mina;
nire ezina.

Eguna ala mendea
ezin banatu,
bihotzaren samina
ezin askatu.

Zoramenaren gaitza edo,
mendiko ekaitza,
nire gose asekaitza.

Ekintza baten islada
denentzat berdina
ez dualako.

Egiten diaten
hura,
denentzat berdina
ez dualako,

denentzat berdina
ezin

izan naitekeelako,
nahiago diat
munduarentzat norbait
izan baino
norbaitentzat mundua
izan.

Jazotakoa
iragana dualako,
iraganak etorkizuna
(jaiotzak heriotza)
ezkututzen duelako,
gure artekoa
ezkutatuz,
amaitu zelako
sentitzen dut;
Ordutik.
Kimu guztien orratza.


Minaren-minez
ohizkoaren-ohizkoz
zoramenaren gaitza dagit,
eta gaitz horrekin
ezin ni mintza.
Buruko lokarriak
askatu nahi nituzke,
eta ireki nire barrua
haizeari.
Pilatutako horbela
eraman dezan
eta nire bizitza
gartu.

Adorea eta kemena
etsaitzat
ezin naiz ireki,
horbelaren usain
ximeldua
gogoan, gogoko
dudalako.

Badakit,
iraganak ez etortzeko
tendentzia duela,
eta badakit barkamen
soil eta huts
batek,
iragana
ezin alda dezakeela,
baina,
zure eta nere
arteko harizpia
sendotu dezake,
sendotzekoa bada.

Urtarrileko erauntsiaren
ondoren,
maiatzeko epeltasuna
espero delako;
zu eta ni
batera, juntu,
ekaitzik gabeko ostadarrean
biziko ginatekeelako,
berriro!

Itzuli zure
txantxangorrira, arren!



**Baldin argia ikustera
iristen banaiz**

Nekane Altuna Angiozar
Alkertasuna Lizeoa
BEASAIN

Sortu,
garatu nahi dut.
Hazia lurrean bezala,
bizi.
Biziaren doatasun guztiak
aprobetxa.
Naizen eta dudan guztia
eskaini,
nahiz eta
haize-erauntsiak astindu,
nahiz eta
hotzak gogortu,
nahiz eta
jasan behar izan:
ekaitza,
beroa,
hotza.
Argi eta euriaren ederra goza.
Izorraren sabel honetan
iluna,
nekea,
beroa da nabari.
Ilun beltzean kokatzen den zulo honetan,
haragiz bildutako barne honetan,
barne honetan,
munduaren zati berezi honetan
naiz ni, ilunez bustirik.

Badakit bai,
badakit jakin ere
 zuentzat ez naizela.

Badakit baita ere
nolakoa den
 gizonaren barne giroa,
 bere giza-dolorea
 bere bozkarioa.

Guztiak,
arnasarekin nahasturik;
 gorrotoa,
 burruka,
 ezin-ikusia
hasperen egiten dute.
Oh, zer erokeria!

Beraien
 hitz eder horiek
 ezkutuan,
 garraztasunaren esanahia
daukate gorderik,
 ilunetik ilunera doan bidera
garamatzatelarik.

Zergatik,
 zergatik ez gaituzte uzten
 eseri eta lasai jaten?
Lainoak begiratu nahi ditugu,
 eguzkia hartu
 eta
 gatzeta usaindu nahi dugu.

Frankoki, ez dugu inor

 mindu

 edo

 zirikatu nahi,

 hain da sinplea!

Baina ez.

 Eguzkiaren argia

 eskupetik kentzen digute

 itzala eskainiaz,

 haize erasoen zigorpenera

 makurtu araziz.

Zer erokeria!

 gorrotoa,

 burruka,

 ezin-ikusia...

Guzti honekin,

 biziaren arnasa

 kentzen saiatzen dira,

 txorien abestiak

 isil arazten dituzte,

 liliaren usaimena

 galdu arazi...

Ez zaie axola

jendeak daukan

 bozkario bakarra lapurtzea.

Oker eta gezurraren bidez

 zigortzen gaituzte.

Oh, zer erokeria!

Niri,


 bihotza erdibitzen didate

bai,

 bihotza eztanda egiteko bidean,

 erraustekotan jartzen didate.

Geldiro-geldiro
ahultasuna zaio nabarmen
nire bihotzari.
Geldiro,
baina gero eta ustelduagoa,
zumea bezain
zimela dago,
bustia.
Hain da nabaria
bere ahultasuna
ze bere punpadak
galduak bai dirudite,
noraezean,
handik eta hemendik
haize zurrumbilo hotz
baten antzera,
nire gorputzaren barnean.
Hala ere,
guztion bihotzak
bat eginik,
arimak lotuaz
jasangaitz diren jokuen aurrean,
jasankortasuna izan dezagun
eta
kontzilia ezinezko
irrifar garratza
agertzen duen
burruka honen aurpegia goza dezagun;
nik ere arnastuko dut,
bortizki gainera,
noizbaitean,
bizia goza ahal izango dudan esperantzarekin.
Lilia usain ahal dezadan,
txoriak kantuz entzun ahal ditzadan...



Eguna

Aitor Esnal Badiola
Garaialde Lizeoa
URRETXU

Zer da eguna?...
Hiztegiek, «hogeitalau ordu dirauen epea».
Hala da?...
Ez!
Gizonarentzat: unetxo,
tximeletarentzat: bizia.
Umeentzat: berria,
agureentzat: betiko.
Hildakoentzat: nahia,
bizidunentzat: hutsa...
Gauean hasi, gauean amaitu,
Zer da?...

Lurraren bira.
Eguzkia, goizeko grazia,
eguneko argia.
Ilargia, ilunabarreko logure,
gaueko argi gure.
Izarrak, ilargiaren lagun,
gure albotik urrun.

Ontzak, nahiago gaua,
loreek berriz argia.
Zein hobe?...
Gaua, ezkutuko bizia,
ezezaguna guztia.
Goizean berriz,
eguzkiaren indarrez
eta boterez
jaikitzen gara indarrez.

Orain hasten da geure partidua.
Oilarrak jo du honen hasiera,
jendea gogor hasi da,
pilotaren atzetik doana
dirudi klasera berandu iristen dena.
Entrenatzaileak,
klaseko irakasleak,
handik eta hemendik aholkuak emanaz.
Jokoa aurrera doa,
gure landareak
dirudite ikusleak.
Nork irabaziko?...
Bazkal unea iritsi da,
denak korrika aldageletara,
entrenatzailearen aholkuak,
dirudite amaren esanak.
Lasai-lasai bazkaltzen gauden bitartean,
besteak errefreskatzen.


Bigarren zatia hastera doa.
Jokatzen duten unean,
besteak klasean.
Jokoa unetxo batez gelditu da.
Jokalariek ura edaten dute;
umeak, berriz, meriendatzen.
Larogeitamar minutu igaro dira,
eguneko hamabi orduak.
Jokalariak, erropa kendu
eta deskantsatzera.
Pertsona guztiak berriz, erantzi ondoren,
pijama jantzita lotara.

Batzuk ohera,
beste batzuk jaiki beharra,
gaueko, iluntasuneko bizitza hasi da.
Herria kobazulo bihurtua,
ilargia da gure linterna.
Eguzkiaren argia bomsai bihurtua,
hasi da gaua.

Eguna ametsez betea,
batzuk astronauta,
besteak mediku,
bat irabazle,
hura galtzaile.
Nork ulertu ditzake?...

Gau erdia iritsi da,
erlojuek lan handiena egin behar.
Egutegiak kexu dira,
aldatzea nahi badute ere...

Beste egun bat!
Zer da azkenean?...
Lurraren bira.
Gizonarentzat: unetxo,
tximeletarentzat: bizia.
Umeentzat: berria,
agureentzat: betiko.
Hildakoentzat: nahia,
bizidunentzat: hutsa...



Premio santu hura

Asier Oiarbide Aldasoro
Alkartasuna Lizeoa
BEASAIN

Doinua: Zaldi zuriarena


1. Idazlan hat eginik
nintzen presentatu.
Sobrare ona eta
txapeldun geratu.
Donostia aldera
ninduten gertutu,
baldin nahi izan banu
premioa hartu.
Udaletxen juxtu
nintzaden aurkeztu,
barneraino sartu,
lekua bilatu,
jende dotore asko
nuen aurkitu.
2. Jendea bazegoen,
premio zaputzak.
Denbora pasa eta
hartu gaitu hotzak.
Jendea urduritu
aurpegi laiotzak,
zuzentzaileak berriz
jotzen ditu lotsak.
Han ziraden hotsak,
begiak zorrotzak,
dardarka bihotzak,
urduri arrotzak.
Halako batez ekin
du atso hontzak.

3. Atsoak erakutsi
du erdara fina,
bultzatuz doan eran
Francon dotrina.
Saririk ez omen da
guk behar adina;
ekarlearen kulpa
ordea, jakina;
bai jende zikina,
hauek dute grina,
azkarrak ez baina
koadrila ezjakina.
Azken aldiz ikusi
naute alajaina.

4. Behingoan iritsi zen
gure ekarlea.
Pertsona baino gehio
huraxe balea.
Iritsia omen zen
sari banatzea:
sudur mintzetatikan
botatzen nun kea;
izena aipatzea
ta ni agertzea,
orduan hartzea
euren paketea,
laister bueltatu nintzen
lekura ordea.

5. Mila pezetako bat
sobrean sartua,
huraxe izandu zen
nire patua.
Bidaia hirurehun
pezta ordaindua
ta diruz oso urri
hara ailegatua,
kafe konpletua,
Bretxako txurrua,
taxiko pagua,
guztia batua,
mila peztakin ez nun
egin gastua.

6. Mila beatzirehun ta
laroetabosteko
urtarrileko hila
ia hasteko.
Gutun bat iritsi da
nik irakurtzeko,
sutaraino bota dut
guztiz amaitzeko.
Zioten hasteko,
ta bataz-besteko
dirua hartzeko,
eurei bueltatzeko,
heuren errua zela
ta barkatzeko.



ZU eta NI (Hiria medio)

Mikeldi Bengoa Santxo
Batxilergo Institutua
BERGARA

I) OHEAN ETZANIK KALEETAN AMETS SENTSUAL
EROAK DAKUSKIT.

Gaua;
gau beltz basatia
zoko goibelak laztanduz.

Euria;
euri zoro kamikazeak
galtzada inbaditu berria du.

Farolen argiak
heze
galtzada zaurituan,
ziiiiist,
ziutatea
luze
zabal
isladatzerakoan
zaaaaast,
gortinen babesean
zurekin enkontru.

Euri bakartia
urrezko adats hori
orrazteko guraz dabil
(eta)
DESIO ZAITU
hmmmm...
gaueko itzaletan
diti fin ZUrien kontrastea,
biluzik,
tentaldian,

ZU!

II) HERIO-HIRIA ESNATZEN HASI DA, NONBAIT.

Pareta gris,
teila gorri,
gizakia
hiriko zorri.

Nerbioi inguruan,
Barrenkalen,
Deustuko zubian,
sirenotsaren lanturu goibelak
dirau goibel,

eta

jendea biraoka.

—La PUTA!

Zikintasunari,
iluntasunari,
galbideari.

PUNKS NOT DEAD
ERREPRESIORIK EZ
DESOBEDIENZA

spray gorriz pintaturiko
pornografia,
horma zartatuan,

eta

hiribide jendeztatuan
gazte batek

—KAKA!

Hiriari,
gauari,
euriari.

Izerdi hotzean,
lurrari itsasirik,
gatibuan,
farolen argiak
korronte elektrikoak zuzpurturik,

torturaren,
ezjakintasunaren,
justiziaren
lekuko
eta
Patxik
—KAUEN ZOTZ!

Bilbori,
zuri,
niri.

Eskuan harria,
musuan zapia
eta
hiriak hartua zarela
nork ukatuko?
13.AUTOBUSEAN...


III) ZU AMETS, HIRI, ERO.

Hautsa, kea, zikinkeria,
motor oihu itoak
eta
biolentzia lege
baina...

euri tantto lizunek
hazitako esperantza,
harriarteko larrosa,
ispilu hautsian
ilargiaren argia.
Zu
eta
ni.
ZU ETA NI.

POESIA. B maila

B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,
L.H.ko 1. gradua eta
I.E.E.ko 1. zikloa.



Argi bi

Nagore Urbizu Uribe
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA


Gaueko laino artean,
iluntasunaren sabelean,
ilargia erdian
eta honen babesean,
argi bi,
nere bihotzaren betegarri,
goibeltasunean pozgarri,
negar malkoen lehorgarri,
asperguraren denbora-pasa,
nire biriken arnasa,
eguneroko jolasa...

Artzaia ardirik gabe bezala
ni zu gabe.
Erreka ur gabe bezala
ni zu gabe.
Zuhaitza hostorik gabe bezala
ni zu gabe.
Mozkorra ardorik gabe bezala
ni zu gabe.
Udaberria lorerik gabe bezala
ni zu gabe.
Itsasoa arrainik gabe bezala
ni zu gabe...

Aurkitu zintudan halabeharrez,
kale bazterrean gaiso, gose eta hotzez,
begi berde, ile beltz,
nik zu maitatzea derrigorrez.

Etxera eraman bi besoez
eta pitxar bete-bete esnez
eman nizun, atseginez.
Orduz gero zu zara nire
 aingeru goardako.
Orduz gero zu zara nire
 zoritxarraren aurkako.
Orduz gero zu zara nire
 bizitzako hainbat nahiko...
Orduz gero... zu zara zu
 (entzun iezadazu!)
 aingerutxo bibotedun,
 nere bihotz taupaden arduradun,
 lau hankatako buztandun
 txikia,
 nire poz-oinazeen
 kaxatxo itxia,
 nire altxor guztien
 ohorezko bitxia,
 nire haserrean
 lekuko bakarra,
 nire duda-muden
 betiko oharra,
 nire gau beltzetan
 bizten den izarra,
 nire bihotzean
 mamitzen den irribarra...

Xagutxoen atzetik
ibiltzen zara korrika.
Tximeleten ondotik
beti ere saltoka.
Nere hanken artetik
jolas berrien asmoa.
Nere ametsen adarretik
irteten den fruitua.
Futbolari trebea
amonaren artilezko pilotekin.
Izugarrizko adorea
ganbarako xaguekin.
Eguneroko haserrea
amak zure bihurrikeria amaigabeekin.
Begi luze ernea
aitak zure gaiztakeriekin.
Maite zaitut, ordea,
nere bihotz guztiarekin.



Burruka

Aritz Etxebarri Coello
Gabriel Aresti B. Institutua
BILBO

1. Baso batetan herri txiki bat
sortu egin zen antzina.
Gizon langile eta jatorrak
izerdi handiz egina.
Lan guzti hori ez zen erraza
ez eta ere arina.
Ederragoa eraikitzea
gertatuko zen ezina.


2. Herri hortako bizimodua
izaten zen baketsua,
baina ondoko gaztelu baten
bizi zen gizon faltsua,
boterearen nahiarengatik
zegoen guztiz itsua:
herri osoa erasotzeko
egin zuen mehatxua.

3. Erregetxoak herrira heldu
eta jo zuen aldaba:
—Hemendik alde egin zazue,
lurralde hau neurea da.
Herriko denen ahotsetatik
erantzuna zen atera:
—Gure herria defendatzeko
hemen geldituko gara.
4. Erregearen urguilua zen
momentu hartan zauritu.
Bere soldadu guztiak ziren
bederatzirehun ta piku.
Herrian bostehun pertsona ziren
denek nahi zuten gelditu,
burrukarako ondo prestatzen
gogotsu ziren aritu.
5. Erregearen exerzitua
zen oso beldurgarria,
prest baitzeukaten galtzeko ere
beraien odol gorria.
Haiek egingo zuten burruka
ez zen arazo larria,
baina armada heldu zenean
hutsik zegoen herria.

6. Herria erre, lapurtu eta edan e'in zuten sobera.
Arras mozkorrik abiatu zen exerzitua etxera.
Haitzarte baten erdigunetik jarraitu zuten aurrera,
ta herritarrak harri jaurtika hasi ziren goitik behera.

7. Herri guztiek heuren etsaiak egin zituzten zanpatu,
han herritarrak anai bezala egin zirelako batu.
Nire bertsoak aholku batez nahiko nituzke bukatu:
zerbait lortzeko gogo handiaz beharko da defendatu.





Heriotza

Izaskun de los Mozos Olaizola
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Zer ote heriotza?,
Heriotza, mementu batean egon
eta hurrengoan joan daitekeena?
Heriotza isil, heriotza beldurgarri
bihotz guztien galgarri.

Geure existentzia alda dezakeena.
Loaldi amai ezinaren txartel dohako,
loaldi beltzaren gidari makur,
sorgin maltzur, izpiritu nekor.

Laztasunaren arrazoi nonahi.
Landare, animalia, izaki denek ikara;
haren hatzapar traidoreen beldur,
haren begirada hotzaren izu,
beti beldurti heriotza maltzurraren zain.

Izaki bakanentzat itxaro-kabi,
salbatzaile, mesedegarri.
Oinaze, atsekabe kezkarrien etenaldi:
«heriotza ilun, etor hadi,
eman amaiera bizitza latz honi!!!».

Gehienen amets gaizto,
ahantzi nahi baina...
pentsamendutik aparta ezin.
Bizitza hobeagoaren autobus gidari?,
Bai zera, festa guztien hondamendi!


Irudi gaizto, poztasunaren etsai,
arima lapur, deabruaren zerbitzari,
lur barneko suen mandatari.
Malko desertuen arrazoi edonon,
tristuraren eragile nagusi.

«Familia, senitarte negar-zotinka
dituk uzten lurrean,
ez al duk bihotzik, ez al duk gupidarik,
hik, heriotza bihor horrek?
Utz gaitzak bakean, utz zorionean!».

Nor, zer da heriotza gutaz jabetzeko?,
nahi duenean hartu eta eramateko?
Milaka galdera buruan dabilzkit.
Heriotza ase ezin, bizidunen etsai,
hiltzaile-kide eta tristuraren pizgai.

«Polizia, polizia, hel lapurra,
poz, zorion, bihotzen lapurra.
Bizitza kendu digu, esperantza
eta honen ordez utzi
bihotz-mina. Bere izena: heriotza!!».

«Heriotza, heriotza beltza, noiz haseko haiz?
Noiz geldituko esku hiltzailea? Laga bakean,
animalia, lore pertxenta, pertsonak lurrean.
Bigun, poztu hire bizitza mudurria
denok elkarren lagun gaitzen, HERIOTZA».



Orbaindu gabeko zauriak

Iñigo Olabbarri Aldape
Arratiako B. Institutua
IGORRE

1. Kaiola baten barruan legez
txori gaixo bat bezala,
eguneroko monotonian
lagun bakarra itzala,
Herri zahar baten askatasuna
lortzeko nola edo hala
berriro hegaz ez nadin joan
hautsi zidaten hegala.

2. Barrote artetik begi goibelek
botatako begirada
kanpoko hesi zurrun horiek
ez dute pasatzen laga.
Pentsamendu hau bueltaka dabil
buruan egun ta gaba:
askatasuna ta nire artean
badago hainbeste traba.

3. Atzerantz pauso batzuk eman ta
ohe gainean jarri naiz,
egun hauetan ez nagoenez
ni umore oso alaiz.
Begiak itxi, poliki etzan
berdina egiten dut maiz,
horrela une batez ahazteko
barnean dudan hainbat gaitz.


4. Nire begiak isterakoan
burura datorkit sarri
nola gartzela honetara ni
furgoiz ninduten ekarri
eta goardiak torturatzean
hainbat gogo zuten jarri,
goizean ere ni odoletan
nindutela iratzarri.

5. Nire gorputza oinazetua
zauriekin zuten bete;
pasatu nuen hainbat tortura
eta makina bat neke.
Nahiz eta hauek gaur uste duten
naukatela bere menpe,
orbaindu gabe dauden zauriak
berriz ireki daitezke.

6. Eguzkiaren argi debila
lehiotik sartzen ari da.
Berriz zutitu eta jarri naiz
barrote artetik begira.
Pentsatzen dut «noiz itzuliko nauk
ni jaioterri eztira»,
behintzat kanpoko hesi guztiak
gaur eroriko balira.

7. Gelditu gabe jira ta bira
ta ezin joan inora,
nahiz ta kanpora irtetzen utzi
ezin aurkitu gustora.
Kaiola hontan bakardadean
igarotzen dut denbora;
neronek ere ez dakit nola
oraindik ez naizen zora.

8. Hemen barruan nagoenetik
badut zenbait buruhauste.
Goardiek ere kolpeka edo
bortizki tratatzen naute
eta oraindik geratzen zaizkit
niri hiruzpalau urte,
hainbat denbora agoantatzea
erreza denik ez uste.



Zergatik?

Aitziber Alzugarai Sacristán
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Egun hauetan herri kaleetan
laister zabaldu da berria,
mendietako baserrietan
jadanik dute jakina.
Ezkongai eta ezkondukoak
senarreatatik larri dira:
gerrara joan eta itzultakoak
oso gutxi izan bait dira.

Ni neu ere prestatzen ari nauk
gertatuko denaren beldur,
gazte gutxi eta denok joan behar
zaharrak kapaz ez bait dituk.
Ama gaixoek gugatik negar
aitek berriz isilean,
gure agurra prestatzen dute
beraien bihotzen barnean.

Halako batez etxeko atean
sumatu dudan oin hotsak,
bihotza beldurrez kuzkurtu dit
taupadak ere ezin entzunaz.
Hiru gizon dira: soldaduak.
Uniforme gorri eta motz.
Erregearen agindupean
nere bila omen datoz.


Amak orduan negar bizian
niri besotik helduta:
—Seme, arren, ez zaitezela joan
dugun bakarra zara eta.
—Ama, maite dut Euskal Herria
eta maite dut euskara,
herri honen semea naiz, eta
babestu beharra daukat.

Senideak agurtu ondoren
eta soldaduek helduta,
negar-bidetik abiatu naiz
maite dudana utzita.
Itzuliko ote naiz berriro
amaren babes-altzora
haren hitz eztien gozoa
bere ezpainenatik entzutera.

Bide erdian gaude jadanik
eta bihotza triste daukat,
gerta dakidanaren beldurak
arduraturik bait nauka.
Baina honela Euskal Herria
libre gelditzen baldin bada,
gu, euskaldunon bihotz eria
harro sentituko al da!

Bat-batean, hara nola, aurrean
azaldu zaizkigu etsaiak,
armak eskutan prest dituztela
guri tiroka hasi dira.
Geu gutxi, baina, denok batera
aurre egiten hasi gara,
eta lehen balak bularrean
jota banoa lurrera.

—Hiregatik ene lur maitea
borrokatzera nihoan,
nere hizkuntza eta nere herria
defendatzeko asmotan.
Nahi nuena ezin lortu, eta
bizitza emeki doakit,
beste guztiek babes dezatela
gurea dugun Euskadi.



Irakaskuntza ertainetako iruzurto literatur lehiaketa 1988

EK16040524

EUSKO JAURLARITZA
ARGITALPEN-ZERBITZU
NAGUSIA

Salneurria: 424 pta.
(BEZ barne)